



ARGIA



22-26. orriak

Trans Lege berria Hego Euskal Herrian

Zer dakar proposamenak?

#2.726 | 2021/03/28 | 3,90 €




**Nola kendu diote
larritasuna
Fukushiman gertatuari?**

10 | NAZIOARTEA



**Pandemiarekin
etorkizuneko lan
moldeak jokoan**

27 | MAHAI-INGURUA



LARRUN #261
**Emilio Lopez
Adan 'Beltza'**

2. argitaraldia

Bizitzaren ederra loratu dadila

Jakoba Errekondo

Loreak etxeko poza dira. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzea da. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, ureztaketa, ongari naturalak nola egin eta nola birlandatu.



25€

Orri kop.: 248

BIZI BARATZEA

ARGIA

EROSTEKO: argia.eus/azoka 943 37 15 45



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
DOM

Iritziak

- 17 | KARMELO LANDA
- 18 | SONIA GONZÁLEZ
- 19 | FERMIN ERBITI
- 19 | CASTILLO SUAREZ
- 20 | ERRIGORA
- 21 | ENEKO OLASAGASTI

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA: MAITANE ARRI ESCUDERO
- 58 | BERANDUEGI



DANI BLANCO

12 | OIHAN INDART

Euskal dantza eta dantza garaikidea bizi ditu Baigorri-lruña artean hazitakoak. Miren Artetxek egin dion elkarrizketak aukera ematen du bi dantzez ikasteko eta uztartzeko moduez hausnartzeko.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

“Erradionegazionismoa” ala erresilientzia: fukushima bizigarri bihurtzeko taktikak

Jenofa Berhokoirigoin

22 | GIZARTEA

Trans Legea: Medikuntzaren tutoretzatik burujabetzarantz

June Fernández

27 | EKONOMIA | LAN MOLDEAK PANDEMIAN

“Bereizi behar da zer den distantzian egin daitekeena, eta zer ez”

Estitxu Eizagirre

32 | HIZKUNTZA ETA MUSIKA

Erabaki politikoa al da musika euskaraz egitea?

Miren Osa

36 | GIZARTEA | HILEKOA EVAX-EN IRAGARKIETAN

Hegalekin edo gabe, beti odoletan

Ainhua Mariezkurrena

44 | KULTURA

Lourdes Iriondo, Ez Dok Amairuren gidaria

Miel Anjel Elustondo

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Ixone Arana, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Oihane Arretxea, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia, Eneko Arzuaga

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaila taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Surfa mendian, zertarako?

Dena negozio, dena liluragarri bilakatzeko gaitasuna du kapitalismoak, salgaia doanik edukita ere. Donostiako Martuteneko Antondegi mendian, itsasotik lau kilometro eskasera eta hirian urbanizatu gabe geratzen den leku gutxi horietako batean, olatu artifizialen parke bat eraiki nahi du udalak. Jatorrizkoa esku-eskura izanda, zergatik artifizialaren alde egin? Munduan olatu artifizialen parkeak egiten dituen ia enpresa bakarra gipuzkoarra delako eta egoitza berria behar duelako? Ez. Ez dezagun gaizki pentsa. Harrotasun kontua izango da. Abu Dhabiko desertuan snowboarda egin badezakete, gu ez gara gutxiago izango, ezta? Irudian, Suitzako Alpeetan eraiki berri duten parkea.

 ALAÏA BAY  AXIER LOPEZ

Powered





22 URTEKIN GALDUTA, DEPRESIOAK JOTA, PSIKOLOGORA JOATEA ERABAKI NUEN. HASIERAN PUBLIKORA. BAINA ZITEN ARTEKO EPEEK PRIBATURA JOAN ARAZI ZIDATEN. ZORTEA FAMILIAK ORDAINDU AHAL ZUELA. URTEETAKO TERAPIAK BIZITZARAKO HAMAIKA TRESNA EMAN DIZKIT ETA HARRO NAGO!

@gorkerras



ZAZPI HILABETE EMAN DITUT BAJAN, IAZKO ITXIALDITIK ANTSIETATE-KRISIEKIN ATERA ONDOREN. EZ NUEN NEURE BURUA EZAGUTZEN, ETA EZ NEKIEN NOLA AURRE EGIN SENTITZEN NUENARI. BABESA, BALIABIDEAK ETA DENBORA IZAN DITUT, OSASUN-SISTEMA PUBLIKOAK EMAN DIDANAZ GAIN, TERAPIA PSIKOLOGIKO PRIBATUA JASOTZEKO. ERDIGUNEAN JARRI NAHI DUGUN ZAINTZAREN OINARRIZKO OSAGAIA DA BURU-OSASUNA. BALIABIDE GEHIAGO BEHAR DIRA GUZTIONA BABESTEKO. ETA BIZI-BALDINTZA HOBEAK. ETA ESTIGMA GUTXIAGO!

@eidercarton



ZER ESPERO GENUEN GERTATUKO ZELA OSASUN MENTALARI BURUZ HITZ EGITEN BAGENUEN? EGUNEROKOAN GERTATZEN DENAREN ISLA DA, GAUDEN BEZALA GAUDE OSASUN MENTALA EZ DELAKO SERIO HARTZEN ETA ATZEAN DAUDEN INTERESENGATIK

@leire_pinedo



Eutanasia Legea onartu du Espainiako Kongresuak

ARGIA

Martxoaren 18an Espainiako Kongresuak onartu ditu Senatuak Eutanasia Legea-ri eginiko zuzenketak. Hori horrela, lege berri hau hiru hilabete barru argitaratuko da Espainiako Aldizkari Ofizialean, eta, behin indarrean jarrita, osasun sistemaren barruan bideratzen ahalko da eutanasia. Besteak beste, EAJ, EH Bildu, PSOE eta Unidas Podemos alderdien babesari esker gehiengoak lortu du eutanasiaren aldeko legeak. PP eta VOX alderdiak, haatik, gogor mintzatu dira legearen aurka.

Lege berriak honela definitzen du eutanasia aktiboa: osasun-arloko profesional batek paziente baten biziari nahita eta honek eskatuta amaiera emateko ekintza da. Ekintza hau burutu ahal izango du paziente horri gaixotasun larri eta sendaezin batek sufrimendu larri, kroniko eta ezgaitzaile bat eragin edo sufrimendu onartezina eragiten dienean. Holakoetan, osasun-arloko profesional baimendu batek zuzenean eman ahal izango dio heriotza eragiteko substantzia bat, bai profesionalak berak zuzenean aplikatuz edo bai gaixoak bere kabuz har dezan.

Konortea galdu duen gaixo bati ere aplikatu ahal izango zaio, baldin eta aurretik sinatu baldin baditu horren eskaria bermatzen duen bizi-testamentua, aurretiazko borondateak edo lege onartutako balio bereko agiriren bat. Beti ere legea adinez nagusitasunera iritsitako gaixoez ari da, adin txikikoak ez dira sartzen.

Eutanasia nahi duen pertsonak bi aldiz eskatu behar du idatziz eta bi eskaeren ondoren, medikuak elkarrizketa izango du gaixoarekin, segurtatzeko honek ezagutzen dituela bai bere diagnostikorekin eta aukera terapeutikoen xehetasunak, eta berdin eskuera dauzkan zainketa aringarrienak.

Hasteko, eutanasia erabiliko duen medikuak paziente onartu behar du. Medikuek honek eskatu behar dio bere iritzia gaixoaren patologia ondo ezagutzen ditenean beste mediku bati. Beste aldetik dago ebaluazio batzordea, gaiaren balorazioa egiteko bi aditu izendatuko dituen. Biak ados baldin badaude, prozesuak aurrera darrai; bestela, batzordearen osoko bilkuraren esku geratzen da erabakia.

Erkidego autonomo bakoitzak edukiko du eutanasiarako ebaluazio-batzorde bana, disziplina anitzeko zazpi kidez osatuta. Eutanasia aplikatu ahal izango da bai osasun zentroetan (izan publiko edo pribatu), bai gaixoaren etxean ere. Eta prozesuaren ardura daraman medikuak aplikatuko dio gaixoari. Medikuei legeak onartzen die ezetz esateko eskubidea: kontzientzia eragozpen hori alde aurretik idatziz adierazita eduki beharko da.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Familia bat Bruselan



ARITZ GALARRAGA

Ez obituario, ez *Cahiers du cinema*-ko zutabe ere, baina utziz dazue zinemagile baten beste irakurketa bat komentatzen, oso laburra, itxuraz sinplea, seguru inperfektua, gauza handirik kontatzen ez duela ematen duena, baina bere labur sinple inperfektu gauza handirik kontatzen ez duen horretan, niri bederen, irakurketa erabat hunkigarria egin zaidana. Chantal Akermanen *Une famille à Bruxelles* eleberriaz, edo kontakizunaz, edo istorio soilaz ari naiz.

Senarra galdu berri duen emakume bat du protagonista, bere bi alabak, senarra bera, familia zabalxeagoa tarteka –guraso, neba-arreba, koinatu eta abarrekoak–. Bruselako auzo ezin itsusiago batean bizi da –“baina beti eduki dugu bainugela”–, alabak urruti, senarra beste auzoan jada. Eta galera horiei buruzkoa da, hain zuzen, narrazioa, elkarrekin osatzen zuten, duten, osatzen jarraituko duten familia, sendi, pertsona taldeari buruzkoa. Erretratua ez da batere krudela, ez dirudi existentzia oso dramatiko daramanik ere, ez zaio gertatzen beste munduko ezer, baina hain zuzen emakume horren, familia horren arruntasunak eragiten du ezinegona, eta ez nolanahikoa, finean, gu guztion arruntasuna baita.

Akermanen zinemaren bereizgarri omen, ez kalean gertatzen dena, edo ofizina, fabrika, ikasgelan, baizik eta egongela, logela, bainugela, bereziki sukaldetan gertatzen dena harrapatzea. Intimitatea kontatzen du, beraz, baina ez exhibizionismo ariketa batean; konta daitekeenaren mugak zabaltzeko asmoarekin. Kasu honetan, familiaren intimitateaz ari da, gizartea antolatu, arrazionalizatu eta menderatzeko metodori sofistikatuenetako bat den familiaz. Noski, zertaz ari garen familiaz ari garenean: pertsonalki, Antonio Lobo Antunesena nahiko nuke atxiki, alegia, odol loturak gorabehera, familia dela zuk aukeratu duzun, eta zu aukeratu zaituen gizajende sorta hori. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

“OINARRIZKO GIZA ESKUBIDE BAT BEZALA ULERTZEN DUGU ENERGIA”

JOSE MARIA MARTIODA, MENDI-HARAN UR PARTZUERGOKO LEHENDAKARIA

“Europar orain esaten ari zaizkigu hemengo herrietan aspaldi egiten ari garena: etxean beroa izateko eskubidea da tokiko komunitate energetikoa, energiarako eskubidea. Gainera, horrek indarra ematen die existitzen jarraitu nahi duten batzar administratiboei, XXI. mendeko produktu berriak ematen dizkielako burujabe izateko. Adibide bat: zuk zure etxean eguzki-panelak jartzen dituzu eta nik nireak. Sortzen dugun elektrizitatea partekatu dezakegu, ados jarrita”. **ARABAKO ALEA (2021/03/13)**



Soldatak



JUAN MARI ARREGI

Iñigo Urkullu EAEko lehendakariak urtean 105.825 euro irabazten ditu. Baina bere ustez, "sistema ez dago prestatuta" 1.080 euroko gutxieneko pentsioetarako. Ados egongo da Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako sailburuaren hitzekin -94.335 euro irabazten ditu urtean-, "hilean 600 eurok bizitza duina bermatzen dute", eta Arantza Tapia Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburuarekin -honek ere 94.335 euro irabazten ditu urtean-, esan zuenean kaleratzeak saihesteko "aldi baterako soldata murrizketak negoziatu" behar direla.

Sistema badago prestatuta, antza denez, beste soldata hauetarako: Felipe VI.a Espainiako Erregeak, 253.850 euro urtean; Letizia haren bikoteak, 139.610 euro, eta Sofia amak, 114.240. Aitak, abdikazioaren ondoren, 200.000 euro jaso izan ditu urtero berriki arte. Espainiako Gobernuako presidentek 85.608 euro irabazten du urtean; ministroek, 75.531 euro; Espainiako Parlamentuko presidentek, berriz, 230.930, eta diputatuak, 55.880. Espainiako Konstituzio Auzitegiko presidentek, 157.576 euro; CEOE espainiar patronalekoak, 300.000...

Hego Euskal Herrian ere "sistema" halako soldatetarako prestatuturik dago, dirudienez. Urkulluren eta bere sailburuen ordainsariez gain, beste asko daude: Nafarroako lehendakariak, 75.262 euro urtean; bere sailburuek 70.040 euro. Bilboko alkateak 98.018 euro -eta hirurteko bakoitzeko beste 9.774 euro-; Gasteizkoak, 86.870 euro; Donostiakoak, 87.952; Iruñekoak, 65.338... Arabako ahaldu nagusiaren urteko soldata 97.970 eurokoa da; Bizkaikoarena, 101.964; Gipuzkoakoarena, 92.000.

Ba al dakite horiek guztiek 950 euroko gutxieneko soldatarekin, 650eko DSBEarekin edo 650eko pentsioarekin bizitzea zer den? Gutxienez urtebete pasa beharko lukete miseria-zko soldata horiekin, ikusteko milaka herritarren egoera zein den, sistema ez baitago prestatu hauei bizimodu duina eskaintzeko. ●

Ez da ondo aterako

URKO APAOLAZA AVILA

Hernani eta Astigarraga artean, Okendotegi bidean, oinezkoek trenbidea gainetik gurutzatzeko eraiki duten aldamiozko igarobide erraldoia aukeratu du Iñaki Arriola EAEko Garraio sailburuak AHTren inguruko azken xehetasunak emateko. Ez dakit jakingo ote duen hortik metro gutxira Donostiako eraikin zibil zaharrenetako botata eta hainbat familia kale gorrian utzi dituztela duela apenas aste batzuk, trenbidearen trazatuan enbarazu egiten zutelako.


Obren eta kamioien burrunbak eten du behin baino gehiagotan sailburua -aldietan prentsurrekoak emateak hori dauka-, baina pixkanaka irakurri ahal izan du prestatuturik zuen testua. "Gauzatzen ari garen azken zatietako bat da", esan du. Astigarraga eta Hernani arteko AHTren obrak 2012an hasi zituzten eta hainbat atzerapen eta arazo izan dituzte urte guztietan -tartean baita lan-esplotazio sakaketa larriak ere-. Baina badirudi udan aldamiozko behin-behineko azpiegitura desmuntatu ahal izango dutela, "orain arte Okendotegiko bizilagunei pasatzen utzi diena". Zenbat bizilagun geratzen da baina? Adifek euren etxeetatik kanporatu dituenak ez behintzat.

Arriolak, bere hitzartzean, inplizituki azpimarratu nahi izan du dena ondo aterako dela, AHTren obrak martxa onean doazela eta aurki amaituko direla. Baina galderen txanda iritsi denean, aitortu du Espainiako Sustapen ministerioak 2027 urteko "ortzi-muga" duela buruan, ñabardura garrantzitsu batekin: Bilbo eta Gasteizko sarbideak ez dira ordurako prest egongo. Ez ote dute Europar Batasunak exijitzen duen 2030 urtearen muga gaindituko?

Sailburuak esan dezake nahi duena, baina datuak hor daude: *Euskal Y* proiektuaren inbertsioen %58 egiteke daude oraindik, Iñaki Petxarromanek *Berrian* emandako datuen arabera -Nafarroan %92-. Horrela ikusita, ez dirudi trenbidea amaitzeaz denik... Gainera, lanek %40ko gain-kostua izan dute eta 6.000 milioi euro baino gehiago gastatuko dira. Hamabost urte dira Arabako Urbinan AHTren lanak hasi zituztela, eta obra faraonikoa amildegi beltz sakon bat bihurtu da jadanik. Ez, ez da ondo aterako, besoak astinduta ere. ●



Iñaki Arriola Jaurlaritzako Garraio sailburua, Astigarraga eta Hernani arteko oinezko igarobidean.



ZEINEK NAHI DU TXERTOIA PATENTATU?

NAZIOARTEA. Mugarik Gabeko Medikuen informazioa iturri hartuta, mapa egin dute adieraziz munduko zein estatuk babesten duen (arrosaz) eta zeintzuek arbuia-tzen duten (horiz) pandemia garaiotan COVID-19ari aurre egiteko txertoen paten-teak mantentzea. Urdinez, erabaki ez duten estatuak, eta grisez daudenei buruz ez dute jaso informaziorik gai honen inguruan.

TXERTAKETA

%72

emakumeak dira, Espainiako Estatuan txertoa hartu dutenen artean. Eta eragin kaltegarriak adierazi dituztenen %83 dira emakumeak. Adinari erreparatuta, txertoa hartu dutenen %75 dira 18-64 urte bitartekoak, eta eragin kaltegarriak adierazi dituztenen artean %91 ere adin tarte horretakoak dira. Otsailaren 21era arteko datuek erakusten dute argazki hori.



Antzokiak okupatzen ari dira artistak Frantzian

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Koronabirusaren izurriteari aurre egiteko hetsirik segitzen dute Ipar Euskal Herriko eta orokorkia-go Frantziako kulturguneek. Gune hauen irekitzea eskatzeko –beti ere osasun neurriak errespetatuz–, antzokien okupazioak loratuz doaz: 60 bat antzoki dituzte okupaturik.

#OCCUPATIONPARTOUT

Martxoaren 4an Parisko Odeon antzokitik abiatuak, antzokien okupa-zioaren mugimendua hedatuz doa, Frantzia izendaturiko lurraldean. Baionako antzokian ere mobilizatu dira. Kulturguneen itxiera bukatzea nahi dute artista, teknikari eta arte eskoletan diren ikasleek. CGT sindi-katuak abiatu zuen mugimendua.

ESKAERAK

Langabeziaren aseguruaren erre-forma, “prekarioak are prekarioa-go bihurtuko dituen”, errefusatzeko dute. Intermitenteen eskubideen bermatzea ere eskatzen diote gobernuari, eta kulturaren sektorea sos-tengatzeko plan orokor bat.

MOBILIZAZIOAK

Antzokien Batzar Orokorra antolatu-rik dute martxoaren 26rako. Herri-tarrei ere eskatzen diete bat egitea mobilizazioekin, kultura “guztien ar-dura” delako. Maulen berriz, mar-txoaren 20an mobilizatu dira, “kultu-ra baztertu izana” salatzen.



HAUR MOTXILADUNAK. 22 urte geroago ez da aldatu beren egoera. Ekitaldi ba-teratua antolatu zuten Bilbon Irati Gura-soekin Euskal Herrira ekimenak eta Sarek. Umeek haien guraso presoekin Euskal Herrian egoteko aukera izan dezaten al-darrikatu dute.



ATERPEA. Etxegabeen geritzeko hamar *Tiny-House* edo etxola mugikor instala-tuko dituzte Atherbeak eta HSA Habitat Sud Atlantic egiturak uda huntatik goiti Baionan eta Miarriritzen. Euskal Elkargoak lur eremu bat utzi die Miarriritzen eta Baio-nako herriko etxeak beste bat Baionan.



FEMINISMOA. Joan den mendean Egip-ton izan zen pentsalari feminista eta so-zialista nabarmenena, Nawal al Saadawi, martxoaren 21ean hil da, 89 urte zituela, idazle gisa ibilbide oparoa egin eta ema-kumeen eskubideen aldeko borroka ne-kaezin baten ondoren.

“ERRADIONEGAZIONISMOA” ALA ERRESILIENTZIA: **FUKUSHIMA** **BIZIGARRI BIHURTZEKO TAKTIKAK**

Duela hamar urte gertatu zen ezbeharra, Japoniako Fukushima Daiichi zentral nuklearrean istripua, 2011ko martxoaren 11ko tsunamiak eragindakoa. 1986ko Txernobyngo istripua eta gero, larritasun hein berekoa errepikatu zen 25 urte berantago. Hamarkada pasa da, eta dirudienez herritarrak itzuli daitezke zentralaren inguruetara, bertako lur eta uretan atzeman elikagaiak ere jan ditzakete arriskurik gabe. Hala dio behintzat Japoniako Gobernuak. TEPCO zentralaren jabearekin eskuz-esku, agintari politikoek marraztu errealtateari so jarri gara; tartean, ezin gordatuak dituzten zabor erradioaktiboetan ere zentratuz.

JENOFA BERRHOKOIRIGOIN

Hamar urte iragan dira Fukushima zentral nuklearrean gertatu istripuaz geroztik. Hamarkada batez historian gertatu istripu nuklear larrienetarikoa historiako gertakizun soil eta iraganeko detaile bilakarazi du Japoniako Gobernuak. Nazio Batuen Erakundeak ere berriki baieztatu du hango gobernuak behin eta berriz errepikaturikoa: “Istripu nuklearrak ez du ondorio negatiborik eragin Fukushima herri-tarren osasunean”. “Erradionegazionismoan” gara Thierry Ribault *Contre la résilience, à Fukushima et ailleurs* (Erresilientziaren aurka, Fukushima eta gainerateko lekuetan) liburuaren idazlearen hitzetan, eta hori “apokalipsia ohiko bilakarazteko” estrategia argiarekin.

Erradionegazionismo horrek zifren manipulazioarekin eta egia gordetzearekin errimatzen du. Ondokoa dugu seguraski adibide argienetarikoa: kontaminazioarako langa 20 milisievert-eko erradiatziora igo dute autoritateek –konparazione, Txernobyngo maila baino lau aldiz gorago jarritz; eta CIPR Babes erradiologikoaren Nazioarteko Batzarrak 1 mSv-ko heinean finkatzen du muga-. “Estresa emendatzen” zuelakoan, gunea erradioaktibitate neurtzeko testak gelditzeko erabaki politikoa hartu izana ere dugu beste adibide bat.

Errealitate –faltsuki– sano hau planteaturik, 2011n husturiko herrietara herritarrak itzularazten dabil aspaldian gobernua. Lehenik eta behin, kostuak ttipitzeko –errefuxiatuentzako lagun-

tza sozialak bukatu dira-. Alderantziz, orain diru-laguntza bideratzen die herrira itzultzen direnei: 1,2 milioi yen edo 9.500 euro gutxienez bost urterentzat bertaratzen den bertako familiari; eta 4 milioi yen edo 32.000 euro aktibitate ekonomikoa abiarazten duenari.

Oroit gara, istripua gertatu bezain laster, zentralaren inguruko herriak husteko manua eman zuela Tokyoko Gobernuak; hastapen batean bi kilometroko perimetrokoentzat, eta laster hoge kilometroko ere zabalduz –orotara 80.000 herritarrek migratu zuten beharturik, eta inguruko beste 80.000k hautuz-. Gaur egun soilik 336 km²-koa da hustuketa-eremua –Fukushima eskualdearen %2,5a-. Hamabi herri zituzten 2011n hustu, hamar urte berantago zentraletik hurbilenak diren Okuma, Namie, Tomioka eta Futabara ezin dute itzuli, nahiz eta joan-etorriak egiteko baimena ukan. 160.000 errefuxiatuetatik 120.000 baino gehiago dira zentralaren inguruetara itzuliak. “Pilaturiko traumatismo gehitzen zaie traumatismo berria itzulerarekin, iraganeko paisaiatik ez zaielako ezer geratzen”, dio Cécile Asanuma-Brice Japonian bizi den soziologoak. Eta nola ez, ingurune erradioaktibo batean bizitzeak dakarren itolarria ere deitoratzen du.

Erresilientzia... *Wikipedia*-ri segi, “pertsona edo talde batek erresilientzia dutela esaten dugunean, ezbeharrei aurre egiteko gaitasuna dutela adierazten dugu; gerta daiteke, egoera horretatik indarberritua ateratzea ere”. Koronabi-

rusaren krisi globalak gure agintarien ahotan jarri duen nozio hau urte batzuk lehenago bere egin zuen Japoniako Gobernuak.

“ERRESILIENTZIA” GORA ETA BEHERA

Hitz honen erabilpena aztertutako Ribaultek *Contre la résilience, à Fukushima et ailleurs* liburuan: “Oniritziaren teknologia”, “doktrinatzeko mekanismo ia erligioso”, horra zer den beretzat erresilientzia. Istripu nuklearraren bihar-munean Erresilientziaren Ministerioa osatu zuen gobernuak, baita erresilientziaren zigilu-markadun lege eta Liburu Zuri andana ere. Ofizialki, herritarren kooperazioa bilatzeko helburuarekin eginak baldin badira ere, bestelako xedea ikusten du Ribaultek: “Katastrofea erlabitatzeko tresna”.

Sabu Kohso, besteak beste, *Fukushima et ses invisibles : cahiers d'enquêtes politiques* (Fukushima eta bere ikusezinak: inkesta politikoen kuadernoak) liburuaren egileak ere maniobra hauek ikusten ditu: ingurune erradioaktiboan bizitza normalizatu dute. “Krisiaren gestiorako erregimen berria planteatu dute zeinetan herritarrak bahiturik diren”. Egingarritasuna azaltzeko elementu bat zehazten du: “Erradioaktibitatearen ondorioak gradualak dira, ikusezinak eta denboran eta espazioan sakabanaturikoak, ez dira bortizki agertzen”. Hori horrela, arrantza berriz baimendurik dute, Fukushima elikagaiak kontsumitzeko publizitate kanpainak bideraturik di-



ZABOR ERRADIOAKTIBOAK.

IZAN UR KUTSATUAK ALA MOTA EZBERDINETAKO ZABOR ERRADIOAKTIBOAK (BABES-MATERIALAK, ZUHAITZAK, LURRAK ALA BESTE), BENETAKO ARAZOA DUTE AGINTARIEK ESKU ARTEAN: ARGAZKIAN BEZALA, HAMALAU MILIOI METRO KUBIKO ZABOR ERRADIOAKTIBO DITUZTE METATURIK. ARGAZKIA: TORU HANAI / REUTERS.

tuzte, eskolak berriz irekirik dituzte, eta beste. Hots, bizitza normala.

Baina, erradioaktibitatea ikusezin baldin badute ere, begi-bistatik desagerarazi ezinean dute zabor erradioaktiboaren errealitatea.

ZABORRAK EZIN DESAGERRARAZIZ

Gaur egun zisternetan gordetako 1,2 milioi tona ur kutsatu ozeanora isuri nahian dabil gobernua –euri-ur eta erreaktoreak hozteko baliaturiko urak direla eta, 140.000 litro gehitzen zaizkio arazoari egunero-. *Reporterre* komunikabideko *Fukushima nous a fait entrer dans l'ère du 'capitalisme apocalyptique'* (Fukushimak 'kapitalismo apokaliptikoaren' aroan sarrarazi gaitu) artikuluan irakurri dezakegu jadanik 300 tona ur kutsatu dituztela egunero ozeanora isurtzen. 2022ko udarako beteak izanen

dira zisterna guztiak. Ofizialki, isuri aitzin, elementu erradioaktibo gehienak dira filtraturik, tritioa izan ezik. Baina, ur kantitateak ongi neurtuz eta diluituz gero, larritasuna saihestu daitekeela diote gobernukoek zein zentralekoek.

Bestelako zaborrak ere dituzte: hamalau milioi metro kubiko zabor erradioaktibo dira metaturik –begetal kutsatuak, lur kontaminatuak, babeserako jantziak zein bestelako material erradioaktiboak-. Adibidez, milioika zaku dituzte Cesium 137 elementu erradioaktibodun lurrez beterik, bost zentimetrora karrikatu zutelako zentralaren inguruetakozorua. Itsasora bota beharrean, bestelako aterabidea dute Japoniako agintariak: erraustegietan guztia erraustu, horrela behintzat segurtasun handiz metatu beharreko materialek leku gutxiago hartzen dutelako. Zentralaren deskontami-

nazioa erabat bururatzeko beste 30-40 urte beharko dira kontatu. Greenpeacek salatu duenez, zentralaren inguruko herrietara itzultzea eskatua den honetan deskontaminazioaren %15a dute baka-rik buruturik.

Hots, “betikotutako katastrofea” da Fukushimaarena, Sabu Kohsoren hitzetan. Oraindik eguneroko errealitate dute 2011ko istripua, baina bestelako errealitate batez estaltzen dabilta agintariak. Horren lekuko, uda honetan Japonian egitekoak diren Olinpiar Jokoak, sugar olinpikoa zentraletik 20 kilometroetara den herritik abiaraziz hasiko dituztenak. Olinpiar Jokoak aitzin gelditzen den egun kopuruaren berri ematen duen pankarta instalaturik dute Fukushimako geltokian... zehazkiago, berriki arte, airearen erradioaktibitateaz informatzen zuen pantailaren lekuan. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w



BURUA ALDATZEAK GORPUTZA ALDATZEN DU, ETA ALDERANTZIZ



Kontserbatorioan belarriz ikasitakoa beste manera batez ulertu zuen bezala, euskal dantzetan ikasitakoari dantza garaikidetik begiratzen dio orain. Bataren eta bestearen arteko hierarkiarik gabe. Sorkuntzaren eta tradizioaren arteko dikotomiara makurtu gabe. Batzuen eta besteen egien artean, azpian eta gainean dantzatzen du Indartek berea.



MIREN ARTETXE SARASOLA  DANI BLANCO

Noiz eta nola hasi zinen dantzan?

Data ofizial bezala 6 urteak aipatzen ditut, hor hasi bainintzen Baigorriko Arro-la dantza taldean. Baina hori aitzin ere dantzatzen nuen. Izan Baigorri edo Iruñean. Bi herri horien artean ibili naiz beti, aita batekoa eta ama bestekoa izanik. Eta bietan besta giroan hazi naiz, musika eta kantu artean, dantzaldiz dantzaldi. Etxean bada bideo bat 3 urterekin Gazteluko plazan Larrain dantza dantzatzen ageri naizena, amarekin. Hala aritzen nintzen, begira-begira: jendea alde batera, gero bestera, orain itzulia eta orain saltoak! Salto, salto, salto! Traba egingo nuen, baina ni kontent. Musika ere ene egunerokoaren parte izan da beti. Jostailuzko atabal batekin ibili gara Iruñeko Erraldioen desfileetan, amaren ondoan; eta aitaren aldetik, familia baz-

karietan kantuz aritzen ginen denak bi eta hiru bozetara...

Zer oroitzapen Arrolan?

Alde soziala oroitzen dut gehienbat. Ene lagun guziak taldean ziren eta ikastolatik dantzara joaten ginen. Herrian rol bat izatearen plazera oroit dut. Kabalkada, Nafarroaren Eguna... Zure urtea markatzen du dantza talde batean izateak. Xantza ukan dut ukatea lagun talde bat, herriko bestetan dantzaldi bat baldin bazen ez zena herriko beste puntara joaten. Ez, ez, gu han ginen, dantzaldian, orenak eta orenak, izerditan... Plazer sozial hori dut gogoan. Emanaldiak, bidaiak, bestak... talde baten parte izateak ekartzen dizun esperientzia.

Baigorri kristoren xantza izan dugu, gure aitzineko belaunaldiak transmititzen jakin dutelako dantza bizitzeko

molde hori. Dinamika hori, herriko presentzia hori, trukaketak egiteko grina... Haien motibazioa ideia soziopolitiko batzuetan oinarritzen zen, besteak beste, eta herentzia hori zaila izaten ahal da batzuetan atxikitzen...

Noiz eta nola hartu zuen dantzak beste leku bat zure bizian?

Bitxia da. Nik musika ere maite nuen, biziki –panderoa eta trikitixa ikasi nituen txikitik, zazpi bat urtez– eta Baionako Cassin lizeoan ikasi nuen, kontserbatorioetik hurbil baitzen. Baxo zientifikoa egin eta gero, ez nekien zer egin, eta Baionako fakultatean Euskal Ikasketetan eman nuen izena –euskararekiko interesagatik, noski, baina sustut kontserbatorioan musikan segitu nahi nuelako–. Hori zen nire lehentasuna, momentu hartan.



Oihan Indart Salbide

BAIGORRI, 1995



Hainbat dantza taldetan ibili ondoren, Bilaka kolektiboko dantzari profesionala eta zuzendaritzako kidea da. 6 urterekin hasi zen dantzan. Baionako fakultatean hasi zen Euskal Ikastetekin, baina azkenean oinek dantzen bidea hartu zioten. Gurasoen lorratzean, Baigorri eta Iruñea artean ibili da.



Eta azkenean, fakultatera sartzean dantzak leku gehiago hartu zuen ene egunerokoan. Etorkizuna kontzeptuak taldea sortu zen –gerora Bilaka kolektiboa bilakatuko zenaren hastapen-hastapena zen-. Eposta mezu batzuk heltzen zitzaizkidan handik eta hemendik... Barnealde eta kostaldeko hainbat gazte elkartzen ziren talde horretan. Jende dinamikoa zen. Lanketarako gogoia zuena, euskal dantza sorkuntzara bideratzeko helburua zuena. Lehen emanaldiak sortuak zituzten, eta ikastaroak eskaintzen ari ziren. Nik Zube-roako dantzak ikasteko klase batean lur hartu nuen, eta geroztik hor segitzen dut.

Beste hainbat proiektutan ere parte hartu nuen fakultateko hiru urte haietan. Mutiko izanki, ate anitz zabaltu zaizkit. Mutikoak falta dira denetan! Pascal Lazkanorekin, Senpereko Zarena Zare-

lako taldean, batetik, bestetik Jon Iru-retagioenarekin Maritzuli konpainian... “Bada mutiko berri bat!” zabaltzen zen, eta ateak zabaltzen zitzaizkidan. Arrolan segitu nuen, irakasle ere aritu nintzen... Baina ondoan beste bide bat egiten hasi nintzen. Hasieran martxan ziren ikusgarrietan ordezkot, gero ikusgarri berrien parte... Deitu, ordezkatu, egon. Urte horietan, horrela ibili nintzen. Sekulako formakuntza jaso nuen, euskal dantzan sakoneko lan bat eginez. Teknika zorroz-tuz.

Eta bat-batean Elirale konpainiako dantzari profesional bilakatu zinen...

Dantzaren boom horretan, Aiko taldearen jota ikastaro batean, Pantxika Telleria gurutzatu nuen, Elirale Konpainiako sortzailea. Gerora, fakultateko azken urtean, entzun nuen deialdi ireki bat egiten

zutela bi gazte integratzeko, formakuntzan. Ni lizentzia bukaerara heltzen ari nintzen eta ez nuen bestelako proiekturik. Iduritzen zait orduan, orain bezala, jiten zenarekin moldatzen nintzela, ongi bazitzaidan. "Hau heldu da? Ba goazen!". Audizioa egin nuen eta hartu ninduten. Uda hartan, dagoeneko lanean nintzen EliralErekin Avignoneko festibalean. Ene lehen sanferminak huts eginak! Hor bilakatu nintzen dantzari profesional, nik uste. EliralEren bidea onartuz, hautua egin zen. Intermitentzia estatutua segurtatzen ziguten. Lizentzia bukatu eta estabilitate ekonomikoa bermatua nuen, zer eta maite nuena egiten!

Euskal dantzatik dantza garaikidera bada aldea... Nolakoa izan zen trantsizioa?

Pixkanaka egin behar izan nuen. Imitazioz, entseguz, eta pazientziatz... Buruko mugak ireki, eta aitzina jo. Ez dut uste beste sekreturik baden.

Konpainian beste neska batekin batera sartu nintzen. Neska hura Bordalen ibilia zen, Akitaniako Ballet Junior-ean, esperientzia klasiko-garaikide batetik zetorren. Hor flipatu nuen. Uau! Hori da gorputz bat landua izan dena, hainbat urtez, horretarako. Beraz, atakutzen duzu alde hori. Fisikoa. Badira bide muskular batzuk euskal dantzetan ez ditugunak bortsaz baliatzen. Banako bat dantatzeko ez dago gorputzaren anatomia osoa ezagutzeko beharrik. Beraz, konpentsatzeko, sekulan erabili ez duzun muskulu bat lantzea dagokizu. Ki-loak galdu nituen. Gorputzak ulertu zuen beste zerbaitetara pasa ginela. Eta frustagarria da, zeren iduri du eraiki ordez deseraiki behar duzula. Beraz, zoaz dena desegin eta oinarritik hastera...

Gogoan dut, Xihiko emanaldian, has-tapenean zuhaitz bat nintzela. Zuhaitza? Ordura arte ez nintzen sekulan zuhaitz bat izan! Eta Pantxika -bere gorputz irakurketarekin- mintzo zaizu zure lepa-uztaiez, edo zure bizkar-hezurraren kurbez, ornoez... Eta erraten dizu, "suge bat da, balia!" eta zuk makil bat senditzen duzu bizkarrean...

Eta gorputzaren mugez gain, bada beste mugarik?

Garaikidera pasatzeak galdegiten du

zure buruko mekanismo guztiak itzulikatzea eta alderantzizkatzea. Mekanikoki, zango batek goiti joan behar duenean, pentsa dezakezu "goitik hartu eta tira" egiten diozula, ala, azpitik altxa dezakezu, besoz lagundurik bezala. Eskemak aldatzeak maiz dena alda dezake.

Intentzioak, inpultsoak, azentuak aldatzen dira ere. Euskal dantzetan, ez da egia orokor bat, baina usu musikaren denbora, pultsua, lurrari lotzen da. Pultsua, lurra, pultsua, lurra. Mugimendua, beraz, zangoen erritmikatik sortzen da. Orduan, lurrean markatzen ez diren beste azentu batzuk deskubritu behar dira. Airean markatu liteke, esaterako. Oldeetan, uhainetan, arnasalditan. Eta euskal dantzari gisa, ez da dantatzeko molde hori naturalki heldu.

Euskal dantzariok formetan pentsatzeko tendentzia dugu. Dantza bat ikasi nahi duzunean, forma imitatzen duzu. Ez duzu pentsatzen, "zeri pentsatzen ari da dantza hori ematean?". Eta garaikidean, beharrezkoa da.

Zure buruaren -hots, gorputzaren- kontzientzia hartzea galdegiten du.



Bide horretan behartuak ote gara den-den-a desegitera, zerbait konbentzionalagoa edo akademikoagoa bilakatzeko? Ez ote du dakigunak, egiten dugunak, garen horrek, balio erantsirik?"

Zer atxiki euskal dantzatik euskal dantza garaikiderako?

Hori bera. Gu euskal dantzariak gara, transmisio herrikoi batetik sortuak. Hau konplexu bezala bizitzen ahal da. Jaso dugun hori guztia traba bat balitz bezala dantza garaikidea egiteko. Baina bide horretan behartuak ote gara den-den-a desegitera, zerbait konbentzionalagoa edo akademikoagoa bilakatzeko? Ez ote du dakigunak, egiten dugunak, garen horrek, balio erantsirik?

Hori ikusten dut gaur egungo desafioa. Berez, ez gara deusean gainean eraikitzen ari. Inor ez da izara zuri, ardatz unibertsal bat. Haiena ere ez. Norma bera ere ez. Orduan, gure bizkarraren makiltasun hori ere bada zerbait. Horrek gorpuzke-ra bat dakar. Dantatzeko modu bat, ez dena eszenarako pentsatua izan, baina bere zentzua duena.



BILAKA KOLEKTIBOA

"Dantzariz eta musikariz osaturiko kolektiboa da, Baionan kokatua.

Musika eta dantzaren garapena sustatzeko sorkuntza espazioa da.

Ni arribatu nintzelarik, kolektiboko lehen dantzari profesionala nintzen. Gaur egun lau-bost dantzari profesional gara. Denak euskaldunak. Erranen nuke euskaraz sortzeak edo beste hizkuntza batean sortzeak emaitza aldatzen ahal duela.

Amateurrekin lan anitz egin eta gero, Bilakatik bizi diren dantzari intermitenteen aldeko parioa egin dugu. Proiektuak beste kolore bat eta beste kutsu bat hartu du. Eta aldi berean zuzendaritza kolektiboa bilakatu da. 18-34 urte arteko jendea gara. Garai hauetan xantza dugu garapen momentua bizi dugulako. Jokoaren kartak eskuetan izatea inpresionagarria da. Proiektuaren zerbitzuan izan nahi dut orain; horretan dira ene indar gehienak".

Orduan zer atxiki gureaz? Nola definitu euskal dantza garaikidea? Zer gelditzen zaizu zuri eszenatoki batera igaten zarelarik, jakinez usaian plazarako sortutako dantzetan trebatutako gorputza zarela? Testuinguruz aldatzeagatik beragatik desnaturalizatzen ari garen materia horrekin zer egin?

Bilakarekin horretaz ari gara gogoe-tan. Zertan bereiziko dira Bilaka kolektiboa lan egiten duen dantzari bat eta Berlingo dantza konpainia batean aritu den bat? Zer da euskal dantza garaikidea? Molde bat eraikitzen saiatzen ari gara, kontzienteki. Zeren kontzienteki egin ala ez, erabaki batzuk hartzen dira.

Eta euskal dantzekin zer?

Antolakunde desberdinekin lan desberdina egiten dituzte. Dena behar da. Ikertu, bildu, aztertu eta esku artean zer dugun jakin, alde batetik. Eta osagai horri joko-a eta bizipena emateko bideak asmatu, bes-

tetik. Bilketa lanak berebiziko garrantzia du –lan horretan admiratzen dut Argia dantza taldearen lana, adibidez, Urbeltzen ikerketen ondorio izan dena–. Baina helburua ez litzateke izan behar dantzak finkatzea eta museoko pieza bilakatzea. Batzuetan gauzak gehiegi finkatzeak, itozten ditu.

Denak aldatzen gara. Garaiak aldatzen dira. Gizartea ere bai. Eta frustragarria izan liteke betiko dantza ere aldatzen ikustea. Baina garaiko zeremonia batzuek ez dute atxiki. Dantza batzuek zuten funtzio soziala galdu dute. Horretan asmatzaileak izan behar dugu.

Orain arte alternatiba gisa eszena landu da. Plazan galtzen zen lekua oholztan irabazi nahirik. Baina ber denboran, eszenaz kanpo segitu behar da asmaketa hori garatzen, herriarentzat eta plaza-arentzat. Badirudi dantza garaikidea gabe ezin dela berritzailea izan, baina baliteke. Hortan biziki maite dut Aiko taldearen lana. Fandangoa binakako inprobisazio jolas bizi gisa ulertzea, esaterako. Pozten nau jakiteak jendea horretan ari dela lanean, eta beraz, ligoteoa existituko dela fandangoan luzaz! Euskal dantza zaharkitutzat badugu osoki deskubritu ez dugulako da. Haatik, materia ezagutu behar da materiarekin jostatu ahal izateko.

Horretan, ez dut uste dantza talde guztien helburua behar lukeenik Euskal Herriko dantza guztiak azaletik menperatzea. Duguna dantza taldeak egin duena, adibidez, interesgarria zait. Haien lanaren parte bat tokiko dantzetan zentratzera pasatu da: “Zer gara gu? Zer nahi dugu? Zeren beharra du gure herriak?”. Inguruan zituzten baliabide eta laguntzekin gustu onarekin eraikitako dantzak sortu dituzte, dantza tradizional berriak. Tradizionala ez da soilik aspalditik dantzatzen dena, baizik eta denboran irauteko gai dena, erritualari

eta funtzio sozialari loturik. Pandemiak agerian utzi du funtzio horren beharra. Mutxiko bat etxean dantzatzea edo mutxiko batek ekartzen ahal dizun *groove* edo kasik trantze hori, plaza batean, hainbeste pertsonarekin...

Dantzaldietan eta euskal dantza taldeetan mutiko gutxiago izanagatik, dantzari eta koreografo ezagunenak gizonak dira gurean ere...

Alde batetik emazte eta neska gehiago bada mutiko baino, eta nik ukan dudana booma izan da, ni motibatua izateaz gain, bazelako mutikoen beharra. Neskak anitzez gehiago dira, baina gero, inguruko dantza konpainia profesionali begiratzen badiegu, anitz edo gehiago mutikoak gara. Bilakan, gure ekipoa, neska bakarra dugu. Kukain ere gutxienezkoa dira, eta izen ezagunenak mutikoenak izan ohi dira. Gero ikusi behar da rola nola banatuak diren.

Dantzaren esparru batzuetan, kultura klasiko edo folklorean bezala, rola argiki markatuak dira oraindik. Anitzetan, gizotasuna indarrari lotzen da eta emaztetasuna finezia eta goxotasun bati. Holakoetan, kurioa da kanpotik gizarteak ekartzen duen paradoxa ikustea: gizon dantzariari homosexual, femenino eta sentsibilitate etiketak ezartzen zaizkio, gero eszena gainean heterosexualitatearen irudia erreproduzitzea tokatzen ahal zaiolarik...

Nire aldetik, proiektuen arabera, generoak inportantziarik ez ukatea apreziatzen dut. Bilakan adibidez, dantzarien artean ez dugu generoa modu konbentzionalean adierazi eta bizitzeko beharrik senditzen. Goxo da. EliralEren azken bakarkakoan ere, biziki maite dut genero normetatik harat nire burua gorputz edo izaki ez definitu bezala senditzea.

Kristoren arnasa eman zidan dantzak. Sexualki arras orientatua ez nintzen momentuan, Avignoneko festibalera joateak lagundu ninduen, anitz. Ez dut uste gaur egungo gizarteak existitzen diren aukera guztiak argiki aurkeztzen dizkigunik. Eta horretan, dantzari izateak eta mundu artistikoan sartzeak sekulako lasaitasuna ekarri dit homosexual gisa.

Soy fauno koreografiarekin Madrilgo Me, Myself & I lehiaketako finalean izan zinen. Orain gutxi aurkeztu berri duzu EliralEren O! bakarkako lana. Zein dira zure asmoak orain?

Aski inpresionatu ninduen Madrilgo esperimentuak. Sortzaileen txapelketa bat zen, eta ni galdua sentitu nintzen, ezpainituen nireganatuak sorkuntzari buruzko anitz galdera. Eta hor konfrontatu nintzen sortzaile batzuekin zeintzuk jadanik biziki urrun joanak ziren. Eta orduko talke horrek sortu zizkidan gogoeten zinezko aplikazioa orain gertatzen ari da. Bai ene sorkuntzetan eta bai Bilakan ere, zuzendaritza kolektibo horren parte izanki.

Soy Fauno lehen etapa ttipi bat izan zen, sei minutukoa. *O!* ikusikizuna, aldiz, interprete gisa bakarka eramandako ene lehen proiektua da. Pandemiak aparte 2020a markatu duena izan da, enetzat. Deskonfinamendutik, emanaldi bakarrak Hegoaldean izan dira, hemen dena blokeatua izanki. Baina martxan da, eta emanaldi-data batzuk finkatuak dira.

Orain ene indarren ehuneko handiena Bilaka kolektiboan da. Badut egarri ttipi bat, aldi berean, testuinguruz eta gune geografikoz aldatzekoa, beste jende batzuekin dantzatzekoa...

Bilaka proiektua sendotuta, horretarako parada izanen da agian. 26 urterekin ez naiz karrera bukaeran estimatzen, baina denbora fiteago aitzinatzen dela iduri zait orain. ●





Iritziak

Gainetik nola kendu



KARMELO LANDÁ
HISTORIALARIA

Demokraziak ezin du biderik egin Espainian. Aspaldiko kontua da berau Estatu espainiarren historian, Estatu sortzetik gaur arte... Aldaketa eskaini eta moldaketa egin, horra hor alderdi espainiar guztien jokabidea gobernura heldu orduko.

Zerk edo nork trabatzen du bidea? Estatuaren beraren oinarri diren botere eta erakundeek. Begira diezaiogun monarkiaren instituzioari: historiaren hondakina beharko luke monarkiak XXI. mende honetan. Izan ere, inguruko herrietan monarkia kendu eta historiaren zabortegira bota zuten aspaldian: Frantzia, Italia, Grezia eta Portugalen. Espainian, aldiz, Borboien errege-etxeak hiru mende luze daramatza Estatuaren buruan, eta ez haien merituz, hain zuzen. Borboi espainiarrak, beste inon ez bezala, bost aldiz berpiztuak izan dira eta erregetzan berrezarriak, Estatu zaharkituaren zutabe berritu modura: Felipe V lehenik, 1700. urtean; Fernando VII bi aldiz, 1808an eta 1814an; Alfontso XII 1874an, Lehen Errepublikaren saio laburra akabatzeko asmoz; Juan Carlos I, Francok berak hautatua, 1975ean; eta orain arteko azkena, haren seme Felipe VI, 2014an.

Berriro ere krisian da Borboien monarkiaren instituzio zaharkitua Estatu espainiarrean, eta honekin batera Armada espainiarrak, Guardia Zibila eta justizia sistemak legitimazio zein funtzionamendu krisi endemikoa agertzen dute aspaldian.

PSOE eta Unidas Podemosen koalizio gobernu progresista deituak berriro ere Estatuaren aldaketa demokratikoaren ikurra altxatu du

Francoren erregimenaren ondorengo Estatu espainiarra berritu eta demokratizatu egingo zela zioen dotrina ofizialak. Trantsizioaren garaian, Adolfo Suárez falangista ohiak sortutako alderdi berriek (UCD eta CDS) hartu zuten aldaketaaren ikurra, baina haien abentura tejerazoa deituan amaitu zen. Ondoren, Felipe Gonzálezen PSOE agertu zen sozialismo espainiarraren izenean, eta aldaketaaren programan zeramatzala errepublika, federalismoa, ez-lerratzeta eta NATO bloketik kanpo mantentzea, eta herrien autodeterminazioa. Ikusi, gaurtik begiratzuz, zertan gelditu zen aldaketa sozialista hura.

Lehen saio sozialista haien lilura zapuztu zenean, felipismoaren gobernu desberdinen gortinen atzean agertu zena ez zen agindutako aldaketa izan, ez: ustelkeria, gerra zikina, erailketak, tortura sistematikoa, kartzela-politika ankerra, ate birakariak eta agintarien aberaste neurrigabea. Horiek guztiek za-

baldu zioten gobernurako bidea eskuin neofrankistari eta PPren gobernuet ustelkerian eta Estatu-praktika ilunetan sakondu besterik ez zuten egin.

Horren guztiaren ondoren eratu da PSOE eta Unidas Podemosen koalizio gobernu progresista deitua. Berriro ere Estatuaren aldaketa demokratikoaren ikurra altxatu du, baina gobernuan urtebete daramala, ez du Estatu krisi larri hau aldaketa demokratikoak bultzatzeko aukera bezala erabili. Aitzitik, krisi larrian dauden instituzioak bere horretan mantentzera jo du, Borboien alde, Guardia Zibil ilunaren defentsan, edo justizia sistema bere horretan mantenduz. Berriro ikusi dugu Estatu, krisi bakoitzarekin endekatu egiten dela, eta gobernu-alderdiak bere mende hartu.

Herri libre eta zorientzua izan gaitezke euskaldunok. Faktore ugari dugu aukera horren alde: jendartea, nortasuna, hizkuntza sustraitua, historia, tradizioa, kultura, kokapen geografikoa, lurraldea, baliabideak, hezkuntza, modernitatea, zientzia eta pentsamendua.

Herri librea izan gaitezke, bai, baina ez gaineen jarri zaizkigun Estatu espainiar eta Frantziarraren menpe. Estatu independentea antolatu behar dugu Euskal Herrian. Ez da erraza, baina egon badago horretara garamatzen biderik. Katalunian une honetan seriotan saiatzen ari diren bide bertsua. Euskal herri-tarrok gu geu ahaldundu. Demokraziaren esparruan kokatu. Herri mugimendu sendoa osatu eta ekin, libre izateko estrategia adostu baten atzetik. ●

Kazetaritzaz



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Prentsa egokia, desinteresatua eta eskuzabala denean, ongia ezagutzeko prestaturik dagoenenean eta hori egiteko ausardia daukanean, prentsa horrek bertute publikoa gorde eta zaindu ahal du; bertute publikorik gabe, herriaren gobernua fartsa eta iseka baino ez da. Prentsa zinikoak, mertzenarioak eta demagogikoak, azkenik, bera bezain truskila den herriari emango dio forma”.

Joseph Pulitzer, 1904.

Ez dut inoiz kazetaria izan nahi izan. Gazte-gaztetan mutil-lagun bat izan nuen. Hark bai. Hark kazetaritza ikasi zuen. Kazetaria izan nahi; hala ere, merezi zion proiektuko aterik ez zitzaion zabaldu. Beste zer baitetan aritzen da gaurkoz.

Ez dut inoiz kazetaria izan nahi izan, baina zelan ez ulertu grina hori? Nork ez du nahi boterearen gezurra azalarazi? Nork ez du nahi ezkutatzen zaigun zinkinkeria argitu? Estolderia altxatu? Herriarrei egia eman? Nork ez ditu inoiz ikusi *All the President's Men*, *The Post* edo *Spotlight*?

Esango dildate, eta arrazoiz, kazetaritza-ibilbide apasionagarriak filmetan baino ez direla, lur hartzen denean, txakur amets guztiak haizatzen direla. Nahikoa lan dela lana ez galtzea gauden egoeran egonda, ohiko komunikabideen

eta, batez ere, prentsa idatziaren krisia tarteko.

Andra bi elkarriketan. Erredakzioa erdi hutsik dagoela kontatzen ari dira, hobeto esanda, elkarri kexaka dabilta, biek ondo dakitenagatik penatan. *Freelance* direla orain gehienak, gutxira arte langile ziren asko barne. *Follower* eta *like*-ak zenbatzen dituen gaztearekin nekaturik omen dago betaurrekoduna, benetan nekatuta pintxoari eman dion haginkada amorratua ikusirik. Bokazioa, bilatuz gero, umeen, fakturen, nekearen artean ondo bilatuz gero, oraindik topa dezakeela, baina aritzeko askatasuna ez dela inondik ageri. Baietz, bestearen erantzuna, kopia-pega egiteaz tortolara arte dagoela.

Eta niri, atzeko mahaian, beste artikulu bat ia-ia amaituta neukala, albis-teak egin zidan mugikorrean krak. Pepe Reiren heriotza. Eta kazetaritzaz hasi nintzen hausnartzen. *Ardi Beltza*-k bere momentuan atera zuen Borboiaren liburu berri eta askoz luzatuagoa ixtearekin batera.

Kazetaritza oraindik bada laugarren boterea, baina noizbait beste botereak kontrolatzeko papera izan bazuen, laster igaro zen botereen propaganda tresna bihurtzera. Eta handik azken eskailera mailara: gezurren fabrika, arerioaren

fake news-ak desestaltzeaz arrandiatzen direnak barne.

Boterearen alfonbrak altxatzeak ondorio larriak izan ditzake. Pepe Rei, kazetaritzaren printzipio eta balioen eredu izateaz gain, horren adibide ere badugu. Akaso inork inoiz film batean islatu beharko du, alde baten kontakizunak leiho hori aurkitu duela baliaturik.

Gurean kazetaritzak askotariko bi-deak hartu ditu. Zorionekoa da batzuk kargutu izana bestelako kazetaritza egiteko modu bakarra, bestela funtzionatzea dela. Talde handiek egiten dutenaren kopia hutsean ez dago proiektu askatzailerik. Egiarekiko engaiamenduari lepoa eman eta inoren bozgorailu eta propaganda-paskin bihurtzean ez dagoen bezala.

Kriantza biak eta hiru pintxoak ordaindutakoan, ilehoriak antiojodunari galdera gakoak bota dizkio kalera bidea hartu bitartean: “Zeren edo noren alde egon nahi dugu kazetariok? Ordaintzen digun enpresaren interesak eta enpresa horrek defendatzen dituen interes alderdikoiak defendatu behar ditugu edo ogibide honi suposatzen zaion zorrotasunaren alde borrokatu behar gara? Neska, akaso utzi behar diogu galderak egiteari eta erosoak ez diren erantzunak emateari?”. ●



FERMIN ERBITI
KAZETARIA

Idazmakinatik Ibai Llanosengana

Guztiok ditugu barnean iltzaturik geratu zaizkigun irudiak. Nik erredakzio bat lehen aldiz zapaldu nuenekoa, horietako bat. Unibertsitateko bigarren kurtsoa amaitu berria nintzen. Profesioaren teoriatik benetako kazetari-tzara salto egin nahian, udako praktikak eskatu nituen egunkari batean. Hura poza nirea baiezkkoa jasotzean!

Uztail hasierako arratsalde bat zen. Egun-karira heldu, eskaileretan gora hasi eta idaz-makinen kontzertua sentitzen hasi nintzen, gero eta ozenago salako atera hurbildu aha-la. Barnean sartzean, erredakzio zaharren beste ezaugarriarekin egin nuen topo: ziga-rro-usaina eta gela osoa hartzen zuen ke-ho-dei trinkoa. Txunditurik gelditu eta han bizi nahi nuela pentsatu nuen. Kazetari bizi, ka-zetaritza bizi. Pagotxa handiagorik, nekez.

Idazmakinen doinuak eta ke usainak gu-txi iraun zuten. Lehenbizikoa gaurko talaia-tik historiaurrekoak diruditen ordenagai-luek desagerrarazi zuten. Bestea, berriz, toki itxietan erretzeko debekuak.

Ordurako, erredakzioak ez ezik, kaze-taritzaz bera ere aldatzen hasia zen, tekno-logia berrien esanetara. Geroztik, azkar-tu besterik ez da egin bilakaera. Horren ondorioz, belaunaldien arteko arrakala handia sortu da kontsumo ohituretan: pa-perezko prentsa irakurri eta irrati eta te-lebista zuzenean ikus-entzuten baduzu, berrogei urtetik gorakoa zaren seinale.

Etorkizuna non dagoen, auskalo. Non ez dagoen argiago ikusten da.

Duela gutxi arte, nik Ibai Llanos nor zen...ideiarik ez. Jordi Évoleren saiora joa-tekoa zela jakitean, semeak eman zidan haren berri. Orduan, katalanak bizkaita-rrari eginiko mesedea aipatu nion. Fran-cisco aita santua edo Messi elkarriketa-tzen dituen kazetariak sare sozialetan-eta dabilen gaztea telebistara eramatea ho-rixe iruditzen zitzaidan: mesede handia. "Mesedea nork nori?", bota zidan semeak. Galderatik ikurra besterik ez zuen eran-tzunak Internetera eraman ninduen. Ibai Llanosen merituak ezagutu nahi nituen.

25 urte, bilbotarra. Honaino, dena gar-bi. Ondorengo, ilun xamarra niretzat: bi-deo-jokoen komentaria lanetan hasi zen profesioan. Urteko *streamer* izendatua, *Twich*-en 3,7 milioi jarraitzaile omen ditu. Bakarrik kanal horretan irabazitakoa: 1,4 milioi urtean. Azken hori bai, ederki uler-tu nuen.

Kazetaritzan idazmakinarekin hasi gi-nenok ez dugu erronka makala. Helmuga etengabe atzeratzen dioten lasterkariaren antzera gabiltza: heldu nahi eta ezinean, itota eta galdera batzuk gogotik ezin ken-duz: Teknologia berrienganako lilurak ez al du baztertu edukien gaineko gogoeta? Euskara nola aterako da iraultza hone-tatik? Eta galdetzen hasita, azkena: Ibai Llanosek ba al daki euskaraz? ●

Animalia basa



CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA

Ulertzen zailenak diren gauzak dira ahazten azkenak. Horregatik galdu-tako gauzak gurekin geratzen dira luzaroan. Egiazki ez daude gurekin, bai-na begiratzen diegu igerileku hutsetako igerilariei begiratzen diegun bezala. Ho-rregatik abandonatuak ez du inoiz bere izaera galtzen. Horregatik ez du doluak bukaerarik. Akordura ekartzen zizkigun oroitzapenak erauzi nahi ditugu huntza apaingarria etxeko paretatik desitsasten dugunean eta horma hondatua agertzen denean. Ezinezkoa da galdutako gauzei ihes egitea. Horrek garamatza logelako

atea zabalik uztera gaua lehenbailehen buka dadin; paisaia elurtuak maitatze-ra, elurrak nola, gure minek ere janzten gaituztelako. Denbora ez dugu orduetan neurtzen; gertuko heriotzak zenbatzen ditugu agenda eguneratzen dugunean. Zu eta ni ezezagunak gara orain. Zu eta ni bes-te batzuen oheetan egiten dugu lo. Odolez-ko uharriak eraikitzen ditugu umerik ez ekartzeko eta ez izateko norengatik negar egin. Izan garen emakume guztiak sasi artean ezkututzen den animalia basa bat dira, errepide ondoko etxe batean ager-tzen dena, beste herri batean. ●

Plateretik baratzera



ERRIGORA

Apenas gara pertsonak; ozta-ozta gara hiritarrak. Kontsumitzaileak gara. Tarteka, erabiltzaileak. Balizko bezeroak: zerbitzu-kontratatzailerak edo ondasun-erosleak. Produktua bera ez bagara, gaitz erdi. Sistemarentzat ez gara askoz gehiago, gauza jakina da hori. Baina, agian, gu geu ere erosoegi sentitzen hasi gara paperean: kontsumitzaile gisa gure eskubideak exijitu, gure interes pertsonalak ase daitezen galdegin eta erreklamazio orriak eskatu.

Alabaina, kontsumitzaile rolean badugu zer eginik nork bere ustezko beharrak asetzetik harago. Zergatik ez, bada, neurritz gain antzetzu? Erakusleioan jartzen zaizkigun kontsumo-ondasunen artean aukera egitera mugatu orde, zergatik ez aritu taldean? Zergatik ez baliatu kontsumitzaile gisa izan dezakegun boterea, elkar hartuta bestelako ereduak hauspotzeko?

Martxoaren 4an *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* kanpainaren edizio berria abiatu zuen Errigorak, plateretik baratzera bidea egiteko gonbidapena luzatuz. Izan ere, gure platera zerekin beteko dugun erabakitzean, oharkabea edo ohartuta, gure baratz zerekin bete edo zerez hustuko den erabakitzen dugu. Izan gaitzek, beraz, platerari edo karterari baino begiratzen ez dioten kontsumitzaile etxekotu eta etxekalteak, ala norbere plateraz gain, gure baratz zerekin jotzen duten kontsumitzaile arduratsuak. Bestela esanda, elikadura-buru-jabetzara bidea gure plateretatik has dezakegu; kontsumitzeko moduak aldatu, ekoizteko erak aldatzeko.

Gurea ekimen xumea da. Ez dugu erraldoi izateko asmorik ere. Kanpaina honek ez du gure baratz zerekin

Elikadura-buru-jabetzara
bidea gure plateretatik
has dezakegu;
kontsumitzeko moduak
aldatu, ekoizteko
erak aldatzeko

gora jarriko. *Ager vasconum* bezala eza gutzen den Nafarroa hegoalde eta erdialdeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza eta pasta eskaintzen ditugu, auzolanean oinarrituriko komunikazio eta banaketa-sistemari esker, ekoizlearen jatorrizko prezioan. Iazko kanpainan, esaterako, ia 100.000 litro olio banatu genituen Euskal Herri osoan. Goitik jota, gurean kontsumitu zen oliba-olioaren %1 izan daiteke hori.

Edonola ere, gure ibilbide laburrean frogatu dugu taldean arituta, milaka kontsumitzailearen hautu kontzienteei ekoizpenean eragin handia izan dezaketela eta elikadura-buru-jabetzaren bidean pausu ederrak eman ditzakegula denon artean, xumeak izanagatik. Ekoizpena eskaerara moldatzen baita; ez da inongo sekretua.

Hala ikusi dugu hainbat produkturen eskaerak gora egin ahala, ekoizpena handitzeko nekazari eta transformatzailearen arteko adostasun berriak beharrezko izan direla, alde guztientzat bidezko harremanak ezarri. Edo produktu ekologikoen eskaerak gora egin ahala,

agroekologiaren printzipioak jarraituz ekoiztako produktuen kopurua hazi dela eta hainbat ekoizle ez-ekologikotik ekologikora igaro direla.

Hala ikusi dugu Euskal Herriko kontsumitzaileak Nafarroa hegoaldeko baratzera begiratu ahala, gero eta nafar ekoizle gehiago jarri direla Euskal Herriko plazari begira. Eta, adibidez, bestela erdara hutsez leudekeen etiketak euskaraz daude orain. Lehen erdara hutsean zeuden ekoizleen webguneak euskaraz bisitatu daitezke gaur. Azken hilabeteotan, gainera, ekoizleen enpresetan euskara planak garatzen hasi gara. Argi dago: euskaraz kontsumitzeko nahia handitu ahala, bere tokia irabazten ari da euskara ekoizpenean.

Une honetan, hainbat produkturen ekoizpenean muga handiak ditugu. Kanpaina bukatu aitzin agortu zaizkigu pikillo piperrak eta potxa ekologikoak, eta beste hainbat agortzeko bidean dira. Haatik, muga hauek ahultasun gisa beharrean, aukera gisa ikusi behar ditugu: gaur eskaera indartuz gero, bihar produktuen ekoizpena indartzeko pausuak emateko moduan izango gara, orain arte egin dugun antzera. Hartu gogoan gaurko kontsumoaren arabera izango dela biharko ekoizpena.

Esan dugu gurea ekimen xumea dela. Ez du Bidea izateko xederik, ezpada bide bat gehiago izatekoa. Bestelako kontsumo, banaketa eta ekoizpen-ereduak sustatzea asmo duten mota eta eskala askotariko ekimenekin soinez soin aritu nahi du Errigorak. Ahal denean inspiratzaile, gehienez xurgatzaile. Tamalez, plateretik baratzera bide luzea dugu egiteko. Zorionez, bidezko gozatzeko parada izango dugu luzaroan. ●

Eta hau eta gero zer?



ENEKO OLASAGASTI
GIDOILARI, ZUZENDARI ETA EUSKAL
AKTOREEN BATASUNEKO LANGILE

Lehenago ibilitako bidea hartuko dudan sentsazioa daukat. Gaur idatziko ditudanak aspaldian idatzi nituela eta alperrik ari naizela. Baina, temati halakoa, hemen nago. Pandemia madarikatu honek batzuk aspalditik ezagutzen genituenak agerian utzi ditu. Baina ezertarako balioko al duen da nire galdera. Hain larria izan da egunerokoa bideko zuloak estaltzen gabiltzala oraindik. Baina garbi daukat ipurdi zikinaren gainean, garbitzen saiatu arren, galtzontzilo berberak jartzen baditugu ez dugula ezer konponduko. Ideia berriak eta neurri berriak beharoko dira. Hitz bat ahotik ahora ibili da eta dabil: zaurgarritasuna. Eta garbi geratu da gure arloak abizen hori daramala. Ez naiz zaurgarritasun horren ondorioak banan bana zerrendatzen hasiko, artikulua horretan joango zait eta. Baina zauria ez da tiritu batekin konponduko, hori garbi dago. Eta orain arte Betadinea litroka gastatzen gabiltza, baina zertarako? Ikasiko al dugu honetatik guztitik ondorioak ateratzen? Kapazak izango al

Has gaitezen zein
Gizarte Segurantzaz
eredu nahi dugun
aztertzen. Eta artistok
zein trataera izango
duten bertan

gara lehenagotik oker zeudenak zuzentzeko? Izango al da gure agintarien alde hori egiteko borondaterik? Ikuskizun dago oraingoz.

Honen guztiaren aurretik mahai gainean zegoen ditzosozko Artistaren Estatutua. Baina hori paper bustia besterik ez zen, garatu beharreko proposamen batzuk soilik. Nagusiki bi adar zituen: Fiskalitatea eta Gizarte Segurantzaz. Garbi daukat Kultura Saileko langileak motxila bete lan dabiltzala eta ahaleginak egiten dituztela baina beti dago aitzakia- ren bat. Dela “hori ditugun hiru Ogasu-

nen ardura da”, dela “hori Lanbide edo Espainiako Gobernuarena”. Zeinen erraz banatzen diren ardurak ezer ez egiteko unean. Eta agian garrantzitsuena, nola neurtuko ditugu denborak egin beharrekoak egiteko? Hilabetetan, urtetan, hamarkadetan...? Eta bitartean gure egoerak berdin jarraituko al du, badakigunean zeinen egoera jasangaitzak sortu dituen? Bere horretan mantenduko ditugu?

Garbi dago gakoetako bat Gizarte Segurantzarena dela. Baina zein da estrategia? Zain egon eskumena jaso arte? Jasoko dugun azkena izango dela jakitun garenean? Apustu egingo nuke espetxeen eskumenari dagokionean ariko direla ereduaren gauzagarritasunaren inguruan hausnartzen eta eredu propioaren bila. Bada, has gaitezen zein Gizarte Segurantzaz eredu nahi dugun aztertzen. Eta artistok zein trataera izango duten bertan. Badago eta non begiratu Europa berean. Ez gaitezen ahalmena jaso arte itxoiten egon, dagoeneko berandu gabiltza eta. ●

Basherri
GIZARTE

Elika gaitezen irizpideak kontuan hartuta eta amalurra zainduz

655709043 | info@basherrisarea.eus

ESPAINIAKO ESTATUAN

TRANS LEGEA

Medikuntzaren tutoretzatik
burujabetzarantz



Espainiako Berdintasun Ministerioak sustatutako Trans Lege berriaren proiektuaren xedea da indarrean dagoen 2007ko araudiak ezarritako patologizazioa eta babesgabe utzi zituen kolektiboen bazterketa bukatzea. PSOE eta Podemosen arteko lehiak blokeatu duen egitasmoak eztabaida feminista bortitzarekin ere egin du topo.

✂ JUNE FERNÁNDEZ ✂ DOM

Autodeterminazioa eta despatologizazioa dira pasa den otsailean Espainiako Berdintasun Ministerioak plazaratutako Trans Lege berriaren zirriborroaren hitz gakoak. Aitzitik, gobernu barruan zein feminismoaren izenean egin diren kritiken muinean beste bi kontzeptuk hartu dute indarra: segurtasun juridiko falta eta emakumeak ezabatzea. Eztabaida honek ertz asko ditu: sexu/genero sistemaren askotariko irakurketak, artikulatu jakin batzuen inguruko kezkak, alderdi politikoen eta korrante feministen arteko botere lehiak, feminismoaren izenean azaleratutako diskurtso transfobia, sare sozialek sustatutako polarizazioa eta bortizkeria... Baina has gaitzen hasieratik, alegia, lege proiektuaren beharra eta edukia azaltzetik.

NAZIOARTEKO ADOSTASUNA, ESTATUAN BLOKEATUA

2007koa da egun Espainiako Estatuan indarrean dagoen Trans Legea. Ordura arte, erregistro zibilean izena eta sexu aipamena aldatzeko, baimena epaileak eman behar zuen eta kirurgia genitala ezinbestekoa zen. 3/2007 Legeak baldintza hori kendu bazuen ere, beste batzuk ezarri zi-

tuen: bi urteko hormonazio tratamendua eta mediku edo psikologo kliniko batek ziurtatutako genero disforia diagnostikoa. *Stop Trans Pathologization 2012* nazioarteko kanpainak despatologizazioaren aldeko adostasuna bultzatu zuen: Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak eta Europako Parlamentuak estatuei agindu zien trans pertsonen duintasuna eta autonomia errespetatzen dituzten legediak garatzeko. Argentinan 2012. urtean bertan onartutako Genero Identitate Legea izan zen autodeterminazio printzipioan oinarritutako aitzindaria.

Azken hamarkadan, Espainiako Estatuan zortzi lege autonomiko onartu dira –tarteetan Euskal Autonomia Erkidegokoa eta Nafarroakoa– trans pertsonen nor-tasuna onartzeko eta arreta medikua emateko tratamendu edo azterketa psikologikorik inposatuko ez dela jasotzen dutenak. Berme juridiko hori estatuko lurralde guztietara zabaltzea da lege berriaren helburuetariko bat. 3/2007 legearen beste arazo bat ere konpondu nahi du zirriborroak: babesgabe utzi zituela pertsona trans adingabeak, espainiar nazionalitatea ez duten etorkinak eta errefuxiatuak, desgaitasunak edo diagnostiko psikiatrikoak dituzten pertsonak eta transgenero ez bitarrak.

Espainiako Berdintasun Ministerioaren lege proposamenaren garapenean trans kolektiboek eta adituek parte hartu dute, tarteetan Errespetuz eta Naizen elkarteek eta Aitzole Araneta berdintasun teknikari eta sexologoak, Donostiako Udalean Elkarrekin Podemos taldeko bozeramaile denak. Trans mugimenduaren aldarrikapen gehienak jaso ditu proiektuak, baina Aranetak onartu du kostatzen zaiola baikor agertzea. Diputatuen Kongresura heldu arte, zirriborroak egin behar duen bide malkartsuaren lehenengo etapan blokeatuta geratu da: Carmen Calvo presidenteordea da estatu idazkariaren eta idazkariordeen batzorde nagusia zuzentzen duena eta zirriborroak segurtasun juridikorik ez duela argudiatu du. Bi hilabete pasa dira zirriborroa aurkeztu zenetik eta PSOE kudeatutako ministroek ez dute inolako ekarpenik egin.

DIAGNOSTIKOAREN ZAMA

Genero disforia Osasunaren Mundu Erakundearen eta Amerikako Psikiatria Elkartearen gaixotasun mentalen sailkapenetan agertzen da, nahiz eta azken bertsioetan trans identitateak buruko patologien epigrafetik atera dituzten. Aitzole Aranetak argi dauka psikiatren asmakizun zentzugabea dela: “Transexualitatea omen da gorputza eraldatuz sendatu daitekeen gaitz mental bakarra”.

Doktrina horrek eragin handia izan du pertsona transexualak artatzeko protokoloetan. 3/2007 legearen ondorioz, Espainiako Estatuan Genero-Nortasunaren Nahasteetako Unitateak (GNNU) sortu ziren, tartean Gurutzetako Ospitalekoa (Bizkaia) eta Bideko Ama Birjina Ospitalekoa (Nafarroa). Hara jo behar dute trans pertsonak legeak exijitzen duen diagnostikoa lortzeko. “Kanpoko norbaitek esatea zu nor zaren ezinezkoa da, fikzio juridikoa da. Eta gainera, aukera ematen du gure eskubideen kontra doazen galderak eta teknikak erabiltzeko”, nabarmendu du Aranetak. Izan ere, psikiatrek eta psikologoek darabiltzaten galdetegiak estereotipo heterosexistetan oinarritzen dira.

Josebe Iturrioz aktibista transfeministak lehenengo pertsonan daki hormonak lortzeko buru-nahasmendu diagnostikoa jasotzea “zama” dela: “Beste edozein arrazoiarengatik medikuarengana noan bakoitzean, diagnostiko hori gainean dut”.

Lege autonomikoen ondorioz, unitate horiek “nahaste” hitza galdu badute ere, oraindik psikiatraren oniritzia lortu behar du hormonak hartu edo ebakuntza eskatu nahi duenak. Iris Dominguez Iruñeko LGTB ekintzailearen ustez, protokolo horrek osasun profesionalen eta pazienteen arteko botere harremana ezartzen du: “Ezin dugu psikologoarekin edo medikuarekin zintzotasunez hitz egin gure osasuna eta eskubide sozialak lortzeko, entzun nahi dutena esan behar diegu eta”. Horregatik, lege proiektuaren beste ildo interesgarri bat da lehen mailako arretaren alde egiten duena. Dominguezen esanetan, “bereizitako unitateetan artatzeak esan nahi du GNNU jakin bateko profesionalak ikuspegi transfoboa edo atzerakoia badute, jai daukagula”.

Sexu-aipamena erregistroan zuzentzeko lege proiektuaren hamabigarren artikulua zehazten du interesdunaren berariazko adierazpenarekin nahikoa



izango dela: “Eskubide hori baliatzeko, ezin izango da inola ere baldintzatu aldezturik inolako txosten mediko edo psikologikorik erakustea, ez eta pertsonaren gorputz-itxura edo -funtzioa aldatzea ere”. Aitzole Aranetaren ustez, printzipio horren irakurketa desegokia egin dute zirriborroaren kontra egin dutenek: “Autodeterminazioaren esanahia ez da ‘izan nahi dudana aukeratu dezaket’ baizik eta ‘ni naizena aitortuko didate, babes juridikoa jasoko dut, tutoretzarik gabe eta prozesu hormonal baten beharrik gabe”.

Legearen tramitazioa desblokeatzeko aldera, Dominguez eta Araneta bat datoz irtenbide posible batekin: erabilezko horren ohikotasuna frogatzea, izena edo abizena aldatzeko egiten den bezala. “Gakoa da betekizun medikua ez izatea, transexualitatea ez baita osasun arazoa, errealitate soziala baizik”, nabarmendu du ekintzaile nafarrak. Sexologo gipuzkoarrak gaineratu du zirriborroak sexu aipamena aldatu, baina izena mantentzeko aukera ematen duela: “Euskal Herrian izenen tradizio bitarra apurtzeko egindako lanarekin bat egiten du”.

ADINGABEAK BABESTU

2007ko legeak adin nagusikoei mugatu zien erregistro zibilean sexu aipamena aldatzeko aukera. 2019 urtean, Espainiako Auzitegi Gorenak eta Konstituzio Auzitegiak 14 urteko gazte baten helegitearen alde egin zuten eta ebatzi zuten erregistroek transexualitate egoera egonkorra eta heldutasun nahikoa erakusten duten adingabeen eskaerak onartu behar dituztela. “Ordutik, guk lagundu ditugun epaiketa gehien-gehienetan baiezkoa eman digute”, baieztatu du Bea Sever Naizen elkarteko bozera-maileak.

Lege berriaren zirriborroa aurrera ateratzen bada, 16 urtekoek eskaera zuzenean egin ahal izango dute, 12 eta 16 urte bitartekoek guraso edo tutore baten oniritziarekin eta 12 urte baino gutxiagokoek eta desgaitutako pertsonen guraso edo tutore batek eskatuta. Interesdunak haren legezko ordezkarien babesa izango ez balu, lege defendatzaile baten laguntza eskatu ahal izango luke. Horrez gain, zirriborroak administrazio publikoei agintzen die pertsona trans adingabeen identitatea arlo guztietan onartzea, baita erregistroan sexu aipamena zuzendu ez dutenean ere. Egun, Hego Euskal Herriko ikasleek hezkuntza zerrendetan izena aldatzen dutenean, Espainiatik igorritako tituluetan aurreko izena agertzen zaie. Araneta-aren ustez, adingabeen eskubideak aitortzea ezinbestekoa da “bullyin-getik, aurreiritzietatik eta bortxatik babesteko”.

Legearen kontra egin dutenen ustez, erraztasun horiek gorpuzte eta burmuina garatua ez duten haurrak haien bizitza baldintzatuko duen erabakia hartzera eta osasunerako arriskuak dituzten hormonak hartzera bultzatuko dituzte. “Diskurtso horrek familia askoren sufrimendua-ekin fribolizatzatzen du”, kritikatu du Severrek: “Haurrek eta gazteek badakite nor diren eta adieraziko dute nortasun agirian aldatzeko aukera izan ala ez”. Transituak oztopatzeak, ordeza, kalte psikiko handia eragin dezakeela eta legeak adingabeen interes gorenen printzipioa bete behar duela azpimarratu du. “Gizartea aldatzeko lanketa pedagogikoa egiten dugun bitartean, gazteen osasun mentala zaindu behar dugu, eta

ikerketek argi utzi dute hormonek pertsona transen antsietate maila eta suizidio tasa jaisten dutela”, gaineratu du Naizeneko kideak. Aranetak ere adierazi du 12 urte bete arte ez zaizkiela hormonak eskaintzen, pubertaro goiztiarra duten umeek hartzen dituzten blokeatzaileak baikizik, albo-ondoriorik ez dutenak eta itzulgarriak direnak.

“Autodeterminazioaren esanahia ez da ‘izan nahi dudana aukeratu dezaket’ baizik eta ‘ni naizena aitortuko didate, babes juridikoa jasoko dut, tutoretzarik gabe eta prozesu hormonal baten beharrik gabe”

Aitzole Araneta

PERTSONA EZ BITARRAK AITORTZEA

Indarrean dagoen legeak nortasun agirian “emakume” eta “gizon” markatzaileak aldatzeko baldintzak ezartzen ditu, baina ez du pertsona trans ez bitarrentzat aukerarik ematen. Aitzole Aranetak egindako proposamen bat jaso du zirriborroak: dokumentu publikoetan sexu aipamena ez agertzearen aukera. Hau da, edozein herritarrek eskatu ahal izango du nortasun agirian edo pasaportearen G/E sigla (Gizona/Emakumea) kentzea, nahiz eta jaiotza-agirian mantenduko den.

Iris Dominguez eta Josebe Iturrioz trans ez bitarrak dira eta uste dute sexu aipamena herritar guztien agiri publikoetatik desagertu beharko litzatekeela, arraza edo egoera zibila agertzen ez diren bezala. Dominguez aburuz, “helburua genero-markatzaile horren pisua murriztea bada, neurri gehiago garatu beharko lirake, esaterako titulu ofizialetan Jaun/Andere formulak desagertzea”. Beste aukera bat, hirugarren laukitxo bat gaineratzea izango litzateke.

Araneta bat dator, baina gogo-

EZTABAIDA FEMINISTA

Irene Montero Espainiako Berdintasun ministroak legearen nondik norakoak aurkeztu zituenean, zortzi feminista akademiko ospetsuk –tartean Amelia Valcárcel filosofoak– gutuna igorri zioten Pedro Sánchez presidenteari proiektua emakumeen eskubideen kontrako mehatxu gisa aurkeztuz. Milaka sinadura jaso zituen egitasmoak, baina baita ere mugimendu autonomoetako eta hedabide kritikoetako kideek sustatu duten “*Pertsona transen eskubideen aldeko feministak*” manifestuak. Bigarren honen babesleen artean, Euskal Herriko kolektibo ugari agertzen dira, besteak beste, Emakume Internazionalistak, Garaipen eta FeministAlde.

ARGIAk galdetuta, hiru talde hauek ukatu dute trans eskubideen aitortzan aurrera egiteak feminismoaren aldarrikapenen kontra egin dezakeenik. Lege proiektua txalotu dute, nahiz eta kezkaren bat adierazi duten, batez ere adingabeen ingurukoak eta genero/klase/arraza botere harremanak aniztasun politikan aintzat hartzearen ingurukoak. Lehen biek, halaber, feminismoaren sektore instituzional, burges eta zuri batek emakume subjektu monolitiko bat esperpentikoki defendatzen duela kritikatu dute.

Plazandreok ere despatologizazioaren alde agertu da, baina diagnostiko psikiatrikoan oinarrituta ez dagoen ziurtagiriren bat eskatzea proposatu du, segurtasun juridikoa indartze aldera. Halaber, genero autodeterminazioak emakumeen aurkako diskriminazioaren eta indarkeriaren kontrako legeei kalte egin diezaiokeela uste du.

Maria Maeztu Forum Feministako kideen artean legeari buruzko iritzia kontrajarriak agertu dira, baina bat datoz sentipen batekin: eztabaidaren bortizkeriak izugarrizko tristura eragin diela. Azkenik, Euskal Herriko Bilgune Feministak adierazi du gatazka estatuan eman dela eta Euskal Herriko mugimendu feministan ez dutela antzeman. Trans eskubideei dagokienez, ozen esan nahi dute aliatu direla edo izan nahi dutela, “betiere, elkarrekiko aitortza eta errespetutik”.



ra ekarri du pertsona transexual askok nortasun agirian sexua agertzea eskertzen dutela haien identitatea ezbaian jartzen denean. Ministerioak hirugarren kategoria bat sortzearen aukera baztertu duela argitu du, korapilo juridiko asko sortuko lituzkeelakoan, adibidez, genero indarkeriaren legea aplikatzeko orduan.

SEXUA ETA GENEROA

Lege zirriborroak “sexu biologikoa” eta “genero identitatea” bereizten ditu, bigarrena “generoaren barne-bizipena eta bizipen indibiduala, pertsona bakoitzak sentitzen eta definitzen duen bezala” ulertzen duelarik. Kontzeptualizazio horrek eztabaida teorikoa piztu du. Alde batetik, ikuspegi sexologikoaren arabera, sexua ez da genital eta kromosoma kontua, baizik eta pertsonen izaeraren muina. Hala ulertzen dute Aitzole Aranetak eta Naizen elkarteak. Bestetik, Trans Legearen kontra antolatu den korrante feministaren ustez, genero autodeterminazioak “errealitate materialean (sexuan) oinarritutako emakume subjektu juridikoa ezabatzen du” eta “talka egiten du emakumeok, soilik emakume jaiotzeagatik, jasaten ditugun egiturazko desberdintasunengatik eta indarkeria espezifikoengatik babes berezirako sortutako legeekin”, Euskal Herriko Feminista Erradikalak plataformaren hitzetan. “Kromosomek ez naute kondenatzen matxista izatera edo pribilegio sozialak edukitzera”, erantzun du Dominguezek. Eta gaitzetsi du sare sozialetan eta hedabideetan “entretenein-durako debate faltsu” bilakatu dela trans pertsonen eskubideen aurka.

Zirriborroak beste hamaika arlo lantzen ditu, kirol mundua eta kartzela besteak beste, eremu binarizatueta pertsonen identitatea errespetatze aldera. Trans pertsonen %42ak lan esparruko diskriminazioa bizi izan duela kontuan hartuta, gizarteratze eta lan politikak sustatzea ere agintzen du. Le-

gearen kontrako korrante feministaren ustez, genero autodeterminazioak espazio femeninoak arriskuan jarriko ditu –esaterako, aldagelak eta komunak–, gizon bat horietan sartu eta emakume sentitzen dela adierazteko aukera ematen duelako. Aitzole Aranetak diskurtso hori salaketa faltsuen mitorarekin alderatu du, gogoratu du lege iruzurra zigortuta dagoela eta emakume transen kriminalizazioa indartzea gaitzetsi du: “Zergatik ez da kontrako kasua inoiz iradokitzen? Alegia, emakumeak gizon garelako esan genezake abantaila sozialak lortzeko edota patriarkatua barrutik bukatzeko!”

Josebe Iturriozaren ustez, esentzialis-moa muturrera eramaten du generoaren abolizioaren diskurtsoak eta subjektu politikoa “eme jaioei” mugatzeak. Hamabost urtez Medeak taldeko kide izan den ekintzailearentzat “beldurrezko pelikula” da aurrean eskuin muturraz gain “gure ahizpak” izatea. Halaber, deitoratu du emakume* izartxoarekin idazten duen Euskal Herriko mugimendu feminista gatazka hau saihesten dabilela, Espainiako auzia den aitzakiapean.

Edonola ere, legea aurrera ateratzeko oztopo nagusia ez da eztabaida ideologikoa, lehia politikoa baizik. Horren proba da Carmen Calvok blokeatu duen zirriborroa PSOEk 2017an aurkeztutakoan oinarritu dela. “Politikariei bost axola zaizkie pertsona transexualen eskubideak, haien ardura da nor gailentzen den feminismoa kontrolpean hartzeko borrokan”, salatu du Bea Se-verrek. ●



“Bereizi behar da zer den distantzian egin daitekeena, eta zer ez”

EZKERRETIK ESKUINERA: Gabriela Errenteria Esparza, Edurne Mendizabal Amanda, Araitz Rodríguez Gutierrez eta Aran Erasun Urtzelaieta.

LAN MOLDEAK PANDEMIAN

Lan dinamiketan, harreman eta gatazken lanketetan adituak diren ekonomia sozialeko hiru eragile elkartu ditugu Leitzaranen, indarrean datorren errekaren ertzean: Harago Aholkularitzako Aran Erasun Urtzelaieta, Farapiko Araitz Rodríguez Gutierrez eta Gabriela Errenteria Esparza, eta Arremanitzeko Edurne Mendizabal Amanda. Nola ari dira lan moldeak aldatzen pandemian? Nolakoa behar luke etorkizuneko lanak? Nor bere ahotik mintzo direla argi utzi dute, goizegi baita taldean adostutako diskurtsorik izateko.

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA  DANI BLANCO

“Talde-lana”, “kolektiboa”, “proiektua”, “komunitatea”... hitzak erabiltzen ditugu ekonomia sozial eraldatzailerako lana definitzeko. Nola eragin dio pandemiak horri guztiari?

ARAITZ RODRÍGUEZ: Gurean izugarri. Justu konfinatu baino bi aste lehenago hasi ginen telelana modu adostuan aplikatzen. Etxeko ordenagailuak ere sarean lan egiteko moduan prestatu genituen, eta konfinatu gintuztenean pentsatu genuen: “Es-kerrak!”. Bizitza lanarekin uztartzeko beharretik zetorren telelanaren planteamendua, betidaniko eskaera baitzen tarteka etxetik lan egin ahal izatea. Konfinamendu aurretik erabaki genuen: telelana bai, baina ez egunero, bestela talde izaera eta harremanak galtzen baitira. Adostu genuen araua izan zen gutxienez astean hiru-

tan lantokira etortzea. Konfinamendua etorri zen, denok joan behar izan genuen etxera, eta ondoren, bulegora itzuli ahal izan genuenean, aurretik adostuta genuenak jada ez zuen balio. Batetik, bakoitza ezberdin ari delako bizitzen egoera hau eta horrek norbanakoa baldintzatzen duelako; bestetik, etxeko lan erreproduktiboak aldatu egin direlako; eta hiru-garrenik, sentitu zelako “orain berriz egokitzea beste aldaketa batera”, eta aldaketa horretara egokitzeak beste erresistentzia batzuk sortu dizkigu. Etxera joatea *shock* bat izan zen, eta berriz bulegora itzultzea beste *shock* bat izan da. Eta ez dugu topatzen unerik telelanari buruz bere garaian adostu genuen oinarria berrartzeko. Une honetan, “bakoitzaren neurrira” ari gara [a la carta esamoldea erabili dute mahai-inguruan zehar].

GABRIELA ERRENTERIA: Gainera orain ezin gara denok batera lantokian egon, aforo kontuagatik. Hamar langile gara eta gehienez bost soilik elkartu gaitzek. Beraz, ez da existitzen talde osoa batzeko fororik, eta asko nabari da.

EDURNE MENDIZABAL: Gure kasuan pertsona bakoitzak lanpostu espezializatua dauka, eta horren ondorioz, batzuk asko egoten dira ikastetxeetan, beste batzuek gehiago egiten dute bulego lana, beste batzuek aholkularitza lanak egiten dituzte han eta hemen... gu ere norberaren beharren arabera, "bakoitzaren neurria" ari gara, baina saiatu gara espazio batzuetan denok elkartzen. Hori erraztu du gure egoitza Iturolan egoteak [Hernaniko elkarlan sorgunea], eta hilean behin talde dinamika lantzeko Harago Aholkularitzarekin Leitzaranen elkartzeak. Lehenagotik ere ez ginen askoz gehiagotan elkartzen guztiok, baina espazio horiei orain lehentasun handiago eman diegu. Konplexua da, biltzen garenean ere nola bildu kudeatu behar da, pandemia eramateko bakoitzaren moduren arabera: leiho guztiak irekita, mantekin... kontraesan asko eta gatazkak kudeatzea tokatu da.

ARAN ERASUN: Guretat ariketa nagusia izan da hasieratik elkarriketa iraunkorrak izatea, *shock* egoera batean hitzarmenak egiten aitzeko, etengabe. Egoerak aukera eman du genituen moldeak birpentsatzeko: lehen bezala ezin du izan, beraz, beste molde bat bilatu behar da. Hor sortu diren elkarriketetan beharrez hitz egin da. Talde batzuetan ohitura dago beharrez hitz egiteko baina beste talde askotan ez. Eta oraingoa ezinbestekoa izan da: "Nik behar dut distantzia", edo "nik behar dut kontaktua", edo "behar dut zurekin egon", edo "behar dut zaintza kudeatzeko etxean denbora gehiago egotea".

Guri baliagarri izan zaiguna malgutatsuna izan da. Nik orain lehen baino denbora gutxiago pasatzen dut gure espazio komunean, onurak sumatu ditudalako nire bizitza pertsonala uztartzeko moduetan: topatu dut etxetik noiz eta zertarako ari naizen primeran.

Baina orain baliagarri zaiguna, hemendik bi hilabetera agian ez zaigu baliagarri. Gauzak adosten ditugu, baina elkarriketak etengabe egin behar ditugu, zeren emozionalki aldatuz goaz eta beraz, egun batean gauza bat behar dugu eta beste egun batean beste zerbait. Logikoa da, etengabe aldatzen ari den egoera honek asko eragiten digula-

ko. "Bizitza erdigunean" esaten da baina ja! Zer esan nahi du horrek? Nire ustez, beharrez hitz egitea eta talde agendetara ekartzea. Hori behintzat ekarri du pandemiak, eta mugitu, aldatu, egokitu beharra. Eta horrek inbertsio bat eskatzen du taldean eta denboretan.

A. RODRÍGUEZ: Guk taldean asko hitz egiten dugu, emozioek lekua badute batzarretan... baina lan egiteko modu honi ikusten diodan arazoa enpatia sortzeko zailtasuna da. Ni lantaldearekin enpatian nago, aurrean dudanean. Ni pantaila batean nagoenean eta bestea bestean, bakoitza gure burbuilan gaude. Orain gauden moduan oso zaila da taldean airtzea, taldean funtzionatu ahal izateko

"FARAPIN LANALDIA ZAZPI ORDURA JAITSIKO DUGU"

ARAITZ RODRÍGUEZ

"Farapin aspalditik dugun erronka da lanaldia jaitea, berdina kobratuz eta kotizatuz. Eta erabaki dugu aurten egingo dugula: 7 ordura jaitsiko dugu lanaldia, eta horietatik 6 izango dira ordu produktiboak eta ordu bat deskantsua baina bulegoan egiteko, eta ordainduta. Garai honetan espazio informalak beharrezko ditugula aitortzeko modu bat ere bada, taldearentzako beharrezko direlako osasuntsu produzitzen jarraitzeko. Gurean bazkal orduak betetzen du funtzio hori, mahaiaren bueltan elkartzen gara umorean, hitz egiten dugu arlo pertsonalaz, proiektuez... Jardunaldi murrizketa planteatzeak lagundu du kontzienteki lantzen eta gai politiko moduan ikusten espazio informalak. Baita ere kontziente egiten zenbat urratu den talde izaera. Espero dezagun egunen batean itzuliko garela denok bulegora eta planteamendu hau praktikan jarri ahaliko dugula bere osotasunean".

beharrezko baita enpatia: negozioazio etengabe bat da taldean egotea. Gaur egun elkar entzuten dugu? Bai. Baina ezin naiz beste baten lekuan jarri, zeren ni hemen nago, nire munduan. Ez dakit oraingo moldean enpatia lortzea erronka den edo onartu behar den ezinezkoa dela eta gauza denak ezin direla ordezkatu.

A. ERASUN: Hori da ordezkazina den gauzetako bat. Taldearen dimentsio bat oso emozionala da eta presentzian gertatzen da, "gu" izaera sentitzen dugunean. Talde bizipena, bati gertatzen ari zaiona besteak nabaritzea, hori ez da gertatzen pantailetan. Gauza asko galtzen ari gara. Garrantzitsua da bereiztea zein gauza diren ordezkagarriak, distantzian eginda aringarri ere izan daitezkeenak, eta zeintzuk ez. Eta talde bakoitzarentzat agian gauza batzuk izango dira ordezkazinak, talde guztientzat ez dira berdin izango. Adibidez, eremu formalak eta informalak zaintzea: bilera baterako bidean ditugun elkarriketak ere, talde horretan gertatzen dira. Hori ez da *on-line* bileretan gertatzen eta talde baten bizitzan oso inportanteak dira eremu informalean gertatzen direnak.

E. MENDIZABAL: Lankideok orain mugikorrez elkarri audio gehiago bidaltzen dizkiogu eta luzeagoak: "Zer moduz zaude? ni...". Bidean noala audio horiek entzuten ditut, lankideak nola dauden jakiteko. Baina ez da gauza bera, kafe batekin askoz gertutasun handiagoa lortzen da. Teknologien bidez askoz inbertsio handiagoa egin behar da, ez emaitza bera lortzeko gainera.

Zein dira ordezkatu daitezkeen gauzak eta zeintzuk ez?

E. MENDIZABAL: "Gu" sentimendua, taldeko sentitzea, elkarrekin egonda lortzen da. "Gu" horretan, tren berean goazela sentitze horretan nabaritu dut aldaketa handiena.

A. RODRÍGUEZ: Ordezkatu ezin den beste gauza bat sorkuntza da. Gure sortzeko modua batak bestean elkarpenari zerbait eranstea da. Baten ideiatik beste zerbait bururatzen zaio ondokoari, hortik beste zerbait hirugarren bati... erai-kuntza kolektiboan oinarritzen da gure sortzeko modua. Ez dut sumatzen *online* sortzeko gaitasun bera dugunik, potentzialaren ehuneko handi bat galtzen zaigu wifaren bidez. *Online* egiten duguna, azken batean, lanak banatzea da: "Hau sortu behar da, zuk zati hau egin, nik beste zati hau..." eta gero dena batzea.



A. ERASUN: Niretzat galdera hau da gakoa: Nola gaude talde bezala? Baina nola jakingo dugu galdera horri erantzuten, ez bagara elkartzeko? Izan ere, interakzioan existitzen da taldea. Ez badugu bakoitzaren ikuspegia bateratzen, ezin dugu ikusi nola gauden, eta lortzen dugun argazkiak erakusten du nola dagoen kide bakoitza, baina ez elkarrekin nola gauden.

Guk lan prozesuen zati batzuetarako espazio kolektiboa blindatzen dugu: sormena taldean egin badugu, ondoren lanak banatu ditzakegu, badakigulako zertan ari garen, badakigu muina zein den; baina sorrera elkarrekin egin ezean, galdu egiten da ikuspegia.

G. ERRETERIA: Alor pertsonala ere urrundu da. Ez dakigu zer gertatzen zaion ondokoari. Pandemia aurretik lankide bakoitzaren egunerokotasuna ezagutzen nuen. Orain errazagoa da harreman pertsonala galtzea, ez jakitea zer duen bakoitzak buruan. Eta taldea eraikitzeke beharrezko dira harreman pertsonalak, beraz, agian beste bide batzuk eraiki beharko dira horretarako.

A. RODRÍGUEZ: Lehen informalagoak ziren komunikazio bideak galdu egin dira, adibidez, gure bulegoko loreek ere somatu dute. Ni arduratzen nintzen haie-taz, hamar egunez konfinatu naute, eta denak aritu dira ureztatzen: ito egin ditugu. Adibide honekin azpimarratu nahi dut lan talde batean komunikatzeko kanal formalez gain informalek duten garrantzia eta egoera honetan zailtasun handiagoak daude hauek mantentzeko.

E. MENDIZABAL: Lantalde batean beti daude gatazkak, eta orain nabarmen gehiago, zeren pertsonalki eta kolektiboki gure beharrak hari batetik zintzilik daude. Lehen ikusten ez genituen gatazka asko ere muturraren aurrean jarri dizkigu egoera honek, apaindurak erori dira eta errealtate gorria bistaratu da. Gatazkak mahai gainean jarri behar dira eta nola konponduko ditugun adostu. Baina gatazkak kudeatzeko eta baita saihesteko ere, fisikoki elkarrekin egotea oso garrantzitsua da.

Gai hauek denak landu al dituzue lantaldean kontzienteki?

A. ERASUN: Konturatu gara egoera honetan denbora handia eman behar zaiela bileren sarrerei eta irteerei. Hau da, bilerara nola sartu garen eta bertatik nola aterata garen ikusteari. Bolada batean, ia bileraren tarte osoa hartzen ziguten! Baina horrela eginda, bilerak oso eraginkorrak dira, erabaki beharrekoa zirt-zart erabakitzen baitugu.

Denbora honetan tokatu zaigu enpresa askoren gatazketan errazle lana egiten aritzea, eta nabarmen desberdin daramate egoera hau gatazken inguruan gauzak egiten ohituta dauden taldeek. Leku ematen zaionean taldeari, komunikazio zailtasunei eta abar, trebatu egiten gara eta egoera honek entrenatuta harrapatu bagaitu, heldu diezaiekegu egoera berriak dakartzan gatazkei, baina ez bagaude ohituta, gainera erori zaigun harlauza handi baten modukoa da.

A. RODRÍGUEZ: Egoera honek gatazka asko ekarri ditu eta oso modu pertsonalizatuan, momentu batzuetan zaila izan da objektibizatzea ikusteko hau ez dela baten arazoa, maila orokorrean landu eta ikaspen bihurtzeko modukoa dela.

Arazo honi emandako erantzun bat da “bakoitzaren neurrira” funtzionatzea. Errealitateari erantzun beharretik sortu da, aurkitu dugun modu bakarra delako: talde txikia gara eta gainera feminizatua.

Azter dezagun “bakoitzaren neurrira” antolaketa: Zein erabaki dira norberarenak eta zein taldearenak?

E. MENDIZABAL: “Bakoitzaren neurri- ra” antolatzeak baditu bere aukerak eta bere arriskuak. Aukerak probestea oso interesgarria da behar pertsonal eta kolektiboak osatzeko; baina taldeak lehen- tasun batzuk jarri behar ditu. Espazio eta denbora batzuk blindatu behar ditu taldeak, helburu zehatz batzuekin, tal- dearen “gu” izate hori bermatzeko. Ho- rretarako, mugek oso argiak izan behar dute. “Gu” horren barruan eta proiektu- ak baimentzen duen malgutasunaren baitan, norberak bere erabakiak hartuko ditu eta beraz, konbinazioak asko dira. Horrek guztiak denbora inbertsio handi bat eskatzen du lantaldean komunika- tzeko, gatazkak kudeatzeko.

A. RODRÍGUEZ: “Bakoitzaren neurri- ra” lantoki jakin batzuetan soilik funtziona- tzen dugu. Enpresa handietan ez dago “bakoitzaren neurri-rik”. Ekonomia so- zial eraldatzaileko enpresa txiki feminis- tetan ari gara horrela, egoera den mo- dukoa delako, gainera bizitza zentroan jartzeko ikuspegia daukagulako... Hau da, enpresa handiak bideragarri izateko, Farapik edo beste enpresa batek “bakoit- zaren neurri- ra” izan behar du. Horre- lako enpresa handiek, inpaktu handia dutenak ekologian, matxismoan, kapita- lismoan... betikoan jarraitzen dute, baina gu, bizitza, ekonomia, ekologia... erres- petatzen dugunak “norberaren neurri- ra” antolatzen gara, amorrua ematen du, gogoa ematen du enpresa horietara dei- tzeko esanaz “begira, guk ‘norberaren neurri- ra’ egingo dugu lan eta zu horretaz aprobetxatzen zara zure produkzioa au- rrera ateratzeko, baina pasatuko dizugu fakturatu bat esanez zenbat den”. Oso injustua da ikustea norengan oinarrit- zen den sistema ekonomikoa, baita en- presen artean ere: enpresa horiek ba- dakite tira egin dezaketela, guk eta guk bezalako enpresek hartutako neurriei esker eutsiko diogulako ekonomia erre- produktibari. Nor ari da horren etekina irabazten? “Norberaren neurri- ra” siste- ma piramide batean oinarrituta dago.

A. ERASUN: Elkarriketak funtsezkoak dira taldeetan: talde honetan zer eraba-



ki izan behar dira “gu”tik eraikiak, bai ala bai? Talde bakoitzean erantzuna ez- berdina izango da. Elkarriketa hori ez baldin badago, fluktuazio horrek –hau da, beharrei nork erantzuten dien eta nola–, ez bizirauteko moduko egoerak sor ditzake. Horretarako behar dira mu- gak: zeintzuk dira zeharkatu ezin diren mugak? Zer da bakoitzak bere kabuz erabaki ezin duena? Muga horiek de- finitzeko ariketa egiten ez bada, gerta daiteke “gu”a desagertzea, edo beste- la, bakoitzaren beharrei ez erantzutea. Zeren egoerak ez du bizitza jasangarria bermatzen.

A. RODRÍGUEZ: Niri taldetik kanporako komunikazioa falta zait. Zeren guk gure lantaldean negoziatzen dugu, baina lan- taldeak ezin du negoziatu beste sistema guztiarekin, beste enpresekin. Zaintza krisia agerian geratu da nabarmen, eta bistan da enpresen artean ere ez dagoela ekitaterik. Enpresa handiak sostenga- tzen dira beste enpresa batzuen gaines- fortzuarengan. Nahiz eta ahalegina egin gure lantaldea osasuntsu mantentzen, horrek duen gailakostua izugarria da, beste enpresen desorekak gu konpon- tzen ari garelako.

Gainera, bizitzak zentroan jartzearen oso ideia distortsionatua dago. Badirudi bizitza zentroan jartzeak esan nahi due- la nire behar guztiak jartzen ditudala laneko mahai gainean eta besteek ku- deatu behar nautela. Eta ez, ikuspegi as- koz orokorragoa dago “bizitzak zentroan jarri” horren atzean! Baina batzutan gai horri heltzen diogu bere ikuspegi ideolo- giko hori guztia alboratuta, “ni”-tik eten-

gabe, ikuspegi oso kapitalistatik.

A. ERASUN: Edukiz hustuz bezala?

A. RODRÍGUEZ: Erabat! “Zaintza erdigu- nean” eraldaketarako, iraultzarako den kontzeptu bat da eta bidean, askotan, galdu egiten dugu ikuspegi hori. Zain- tzaren arazoa kolektiboa da. Nola eran- tzungo diogu? Kolektiboan erantzuten diogunean, orduan bai ari garela zaintza erdigunean jartzen, eraldaketa ikuspe- gitik.

E. MENDIZABAL: Ardura kolektiboa da- torkit burura. Nire behar pertsonalak eta ingurukoak, sarean asetzea. Sareak behar ditugu gure zaintzetarako eta in- guruko lagun, seme-alaba eta abarren zaintzetarako. Gure lantokian kideon arteko sare bat izan behar dugu elkar- -zaintzeko, baina batez ere arlo profesio- nalean. Enpresen artean ere interkoo- perazioaren bidez elkar-laguntza, elkar zaintza egituratu behar dugu.

G. ERRENTERIA: Eta elkar ezagutza. Duela bost hilabete hitz egin izan bage- nu proiektu bakoitz nola kokatzen zen COVID-19aren aurrean, agian beste pun- tu batean geundeko.

Justu sareei eustea izan da zailena pandemian, osasun neurriak direla-eta. Lantokiko harremanak aldatu al dira, burbuila kontzeptua medio?

A. ERASUN: Guk hasieratik erabaki ge- nuen familia ginela. Gutxi izatearen abantaila da, baina erabaki bat izan zen. Oso esplizitua izan behar da gai honetan, bestela espero dezakezu zerbait eta ez baldin badago, zartako handia hartzen



da. Gure azken hilabeteetako praktika esplizitatzea izan da: nola behar duzu, nola da zuretzat, non kokatzen gara... bestela, espektatiba diferenteen bueltan bizitzen ari gaitezke, eta batek ez badu lantaldea bere burbuilatzat hartu, eta beste batek bai, azken hori bakarrik dago burbuilan!

G. ERRENTERIA: Eta ez denean esplizitatzeko lanketa egiten, zer? Zeren eta errealitatea da espazio askotan zaila izango dela hori egitea. Nola egin aurre egoera horri?

E. MENDIZABAL: Zaila da, baina ez bada esplizitatzen ez dakigu sekula benetan zer dagoen eta egunerokotasuna kudeatzeak inbertsio demasa eskatzen du. Hori konpentsatzen da exigentzia jaitsi eta gerri latza izanda. "Aurrera, bizirik gaude" pentsatuta. Aurten ez du ezerk aparteko distirarik izango, aurrera egitearekin nahikoa da. Lanean, aisialdian, sareetan... askoz gutxiago, "oso ongi altu bat" da aurten.

Aurrera begira: lehengo lan eskema klasikotik norantz jo?

A. ERASUN: Lehengotik zer da balio diguna? Espazio komunak, denborak eta lekuak: horietatik funtsezkoak direnak esplizitatu, erabaki eta zaindu. Fase honetarako erramintez pentsatzean, malgutasuna datorkit burura indar handiz: malgutasuna praktikatzeari, baina hori bai, nukleoa zein den identifikatu eta nukleo hori zainduz, gauza guztien gaitetia. Lehengo gauza batzuk ere ez dira ikuspegi kolektibotik onuragarriak: lanaren ikuspegi eraldatzaile batek gain-

ditu behar ditu ekintza, espazioa eta denbora. Hori argi izan behar dugu, zeren bizitza ez baita ekintzatan bakarrik gertatzen, eta lana ez baita denboran neurtzen.

A. RODRÍGUEZ: Iruditzen zait oraingoz trantsitoan gaudela: lehen era batekoa zen lana, gero eten bat egon zen, orain beste lan molde batzuk eraikitzen ari gara baina ezer ez dago sustraituta... etorkizuna disputan dago. Nork markatuko du etorkizun hori? Gustatuko litzaidake gu izatea markatuko dugunak, beste ikuspegi batekin ari garen taldeak, errespetuzkoak garenak lanarekin, langileekin, denborekin, espazioekin... COVID-19ak erakutsi du edozer gauza dela posible. Sinergiak behar ditugu: badugu gaitasuna etorkizunaren disputa peleetzeko.

A. ERASUN: Eredu bat praktikan jartzea, jada berez, irabaztea da. Nahiz eta horrekin ez diren gainerakoak aldatzen, hor jada garaipen bat badago.

G. ERRENTERIA: Azken urteetan ikasi dudana hori da: asko hitz egin dezakegu, baina ez badugu praktikara eramaten, ez dugu inoiz ezer aldatzen. Farapiz pentsatzen dudanean, beti datorkit galdera hau burura: Nik zer proiektutan egon nahi dut? Zeri erantzuten dion proiektu bat eraiki nahi dut? Erabaki pertsonalak proiektuarekin lotuta daude, zeren nire beharrei erantzuteko hartzen ditudan erabaki propioak proiektuaren izaeraren kontra badoaz, bost aldiz pentsatuko dut egin aurretik. Norberak eraikitzen dugu gure proiektua.

A. RODRÍGUEZ: Horregatik bilatu behar

ditugu sinergiak, proiektu hauetatik kanpora eragiteko, eta ez alderantziz: kanpoko joera orokorrekin ez dezatela proiektua baldintzatu. Adi egon behar dugu disputa horretan sartzen diguten ziriarekin: lantalde atomizatuak posible diren diskurtsoa –langile bat AEBe-tan eta bestea Txinan egon badaiteke, zertarako behar ditugu bertako langileak?–, etxean geratuta aldi berean haurrak zaindu eta lan egiteari "telelana" deitzea...

A. ERASUN: Hori langileon inteligentziari egindako laido galanta izan zen.

A. RODRÍGUEZ: Lana *on line* egiteak gure bizitzak bizigarriak egiten baditu, horretarako erraztasunak eman behar dira aukera dagoen kasuetan. Baina badago *on line* lan bat bestelako konnotazioak dituen eta bultzatzen ari dena: enpresarentzat merkeagoa delako, atomizazioa ekartzen duelako, edozein ordutan lan egitera behartzen zaituen Istanbul dagoen langilearekin konektatu behar zarelako...

A. ERASUN: Langilearen espazioaren inbasio hori bortitza izaten ari da, mota ezberdinetako enpresa askotan. Inola ere existitzen ez ziren baimen batzuk hartu dira: bestea etxetik ari denez, edozein ordutan lanean ari dela espero izateko baimena hartu da. Norberaren lan ordutegia ez bada oso argi mugatzen, ez bada argi uzten hortik kanpo ez zaio la telefonoz deituko edozein huskeria esateko, ordutegirik gabeko ordutegira goaz. Hori atzera pauso nabarmena da.

E. MENDIZABAL: Garrantzitsua da mugak jartzea, telefonoa itzaltzea. Konfinamenduan nabarmena zen lanaldia txikietar bat bihurtu zela, tira-tira-tira egiten zela eta ezin genuela gehiago. Hor ikasi genuen, gauza batzuetan behintzat, mugak jartzen.

Jendarte gisa, datorrenarekiko ziurgabetasun handia dago. Argi dago behar berri asko ditugula maila pertsonal eta kolektiboan. Jendearen beharrak kon-tuan izan behar ditugun proiektuei, aukera asko sortzen zaizkigu, baina aldi berean gure arteko eztabaida eta hausnarketa foroak behar ditugu tarteka, ikusteko zeintzuk diren beharrak, nondik ari zaizkigun iruzur egiten, nola jarri mugak... inoiz baino ageriago dago eusten gaituen interdependentzia: pertsonala, kolektiboa, profesionala, laborala, politikoa... Aukerak ireki behar ditugu, ziurgabetasunak ilusio puntu bat ere ematen baitu. Tuntu handiz ibilita, ziria nondik sartuko diguten. ●

HIZKUNTZA ETA MUSIKA

Erabaki politikoa al da musika euskaraz egitea?

Behin eta berriz jarri izan da euskararen eta musikaren arteko harremana fokupean, bien arteko sinergia etengabe sendotu beharko balitz bezala, edo euskarazko abestiek zuzenki zenbait ate itxiko balituzte legez. Eztabaida zaharrei ahots berrietatik erantzuteko asmoz batu ditu *Euskara*, *bestela ez gara* zikloak Uxue Iturrate *Ningra*, Jurgi Ekiza eta Amancay Gaztañaga musikariak Zumaiaiko Aita Mari aretoan. Erreferenteez, hautu linguistikoez, Euskal Herrian sortzen hasiak diren estilo berriez eta arrakastaz aritu dira luze eta zabal.

 MIREN OSA GALDONA

40 lagun inguru bildu dira Larraina euskara elkarteak eta Zumaiaiko Udalak elkarlanean antolatzen duten zikloaren azken saioaz gozatzerara. Lehen begi kolpean elkarren artean zerikusi gutxi duten hiru sortzaileraren arteko hizketaldia dela pentsa dezake entzuleak, eta ez da oker arituko, ez tokikotasunak, ezta musika estiloak ere ez baitituzte batzen: arabarra den raperoa, rock abeslari lapurtarra eta indie munduan dabilen gipuzkoarra. Euskararen eta musikaren arteko harremanaz galdetuta, dauzkaten esperientziak oso bestelakoak dira, baita hartutako hautuen arrazoiak ere.

Sortzaile gisa hainbat diziplinatan euskaraz aritzen bada ere, Grises taldeko abeslari bezala gaztelaniaz aritzen da Amancay Gaztañaga zestoarra. Ekuadorren jaioa, gaztelania du ama hizkuntza, eta hizkuntza berean egin zituen biolin ikasketak. Herri euskaldun bateko taldea izan arren, buruan zuten musika motak ez zuen euskarazko ahotsik eta kanpoko erreferenteen bidez hasi ziren lehen akordeak jotzen: “Ingelesezt ez genekielako hasi ginen gaztelaniaz sortzen, egin nahi genuen musika hizkuntza horietan egiten zelako”. 18 urte atzera egin beharra dago unea kokatzeko, euskaraz egun adi-na ekoizpen aniztasun ez zegoen garaira.

Jurgi Ekiza euskararen alde lerrokatu zen, Negu Gorriaken kontzertu baten ondorioz berak ere musikaria izan nahi zuela berretsi zuenean. Willis Drummond taldeko abeslaria eta gitarra-jotzailea euskaraz hazi bazen ere, erabilera ezak eta hezkuntza frantsesez jasotzeak euskararekin zuen harremanetik aldentu zuen, 17 urterekin AEK-n izena eman zuen arte. Musika “euskarara hurbiltzeko” ariketa gisa ulertu zuen bere garaian, eta egun ere hala dela dio, nahiz eta entzule moten arteko aldea geroz eta handiagoa izan, bere iritziz: “Duela 20 urte Negu Gorriaken kontzertuetara euskaraz ez zekien jendea joaten zen. Orain ere gerta daiteke, baina esango nuke egun euskaraz aritzen garenon entzuleak euskaldunak baino ez direla: komunitatearen zatiketa handiagoa dela esango nuke”.

Uxue Iturrate da hiruetatik gazteena, baita taula gaineen muturra sartzen azkenena ere. Ningra ezizenez da ezaguna, eta raperoa da. Julen Aperribai moderatzaileak “rap mundutik eta Gasteiztik datorren” artista gisa aurkeztu badu ere, Ningrak Bitorianokoa dela nabarmendu du, Arabako herri txiki batekoa. Faktore garrantzitsua da, aitortu baitu herrian nahiz ingurukoekin gaztelaniaz aritu arren, militantzia eta hezkuntza euskaraz

jaso izanak eragina izan duela bere sortze prozesuan. “Euskaraz sortzen dut, hautu kontzientez”.

Horri tiraka, euskaraz egiteko zergatiaren atzetik tematzen diren kazetariei eta kritikariei egin die erreferentzia moderatzaileak, hautu kontzientea den ala ez galdetuz. Ekizak eta Ningrak argi diote erabaki politikoa dela musika euskaraz egitea, Iparraldeko egoera soziolinguistikoa ikusita, “guk ez badugu egiten, nork egingo du?” argudiori eutsita taularatzen baitira Willis Drummondoko musikariak. Ildo beretik doa Iturrate ere, egun euskaraz egiten den hip-hop ekoizpena eta erreferente eskaria ikusita dio ezinezkoa dela “joera naturalezt” hitz egitea, hautu kontzientea baita Euskal Herrian sortzen ari diren estilo berriei euskaratik heltzea. “Euskal Herri euskaldunagoari begira, ederrena hautu naturala izatea litzateke, baina hori ez da egoera”, dio raplariak.

Gaztelaniaz egiten duten taldeen gainean ere harri bera jarri ohi dela gogorazti du Gaztañagak eta geroz eta ohikoa goa dela euskal agendan hizkuntza bat baino gehiagotan aritzen diren taldeak aurkitzea. “Gauzak aldatzen ari diren seinalea da. Jendeak naturalki egiten du”. Hala, beste diziplinetan hizkuntzarekin onartzen diren joerak musikan “pentsae-



JUAN CARLOS RUIZ / FOKU



ANDONI CANELLADA / FOKU



Goiko argazkietan Amancay Gaztañaga Grises taldeko kidea eta Jurgi Ekiza Willis Drummond taldekoa. Beheko argazkian Uxue Iturrate "Ningra" rap kantaria.

DANI BLANCO

zinak” direla dio, antzerki obra bat bi hizkuntzatan estreinatzea, esaterako. Hala koetan ez dagoela hauturik nabarmendu du, eta ez dela zalapartarik sortzen: “Erdaraz sortutako obra bat saritu daiteke euskarazko obra onena bezala eta inor ez da asaldatzen”.

NORENTZAT SORTU

Kanpoko merkatuan oihartzuna edo lekua izateko asmoz jo ohi dute zenbait musikaririk euskaraz eta erdaraz abestera; etxeko publikoa ase eta urrunagokoei keinua eginda. Halakoen atzean, lortu nahi den publikoa Euskal Herritik kanpoko entzulea dela dio Ekizak, ez barneko erdal komunitatea. Musika popularra egin nahi duen sortzailearentzat jokabide zilegitzat jotzen du, baina kezka du ez ote dituen gizarteko bi blokeen arteko arrakalak areagotzen, euskaraz dakitenen eta ez dakitenen artekoa. Dena den, ziur da euskara hango nahiz hemengo entzuleentzat “erakargarria” dela, jendeari “berezitasunek” interesa sortzen baitie. “Willis Drummondek nazioartean egin izan ditudan bira apurrek berretsi didate jendeari gustatzen zaiola euskaraz den musika entzutea, hizkuntza hegemonikoetatik kanpo kokatzen delako, edo erakargarria zaielako, biak izan daitezke”.

Berri Txarrak fenomenoari ere egin diote erreferentzia. Hiru artistek txalotu dute talde nafarrak lortutako arrakasta, eta arbuiatu dituzte profesionalizazioan bidea eginagatik taldeak jaso izan dituen kritikak, nahiz eta Ningrak ñabardura egin duen gaiaren inguruan: “Zein gorpuztetatik lortu dute? Zein posiziotik? Apenas aipatzen den, baina zalantzak ditut gizonak izango ez balira lortuko luketen edo ez”. Dena den, guztiak bat etorri dira komertzializazio bidea ukaezina dela musikatik bizi ahal izateko. “Sortzaileok ez gara airea arnastetik bizi eta tamalgarria da profesionalizatzeko asmoz emandako pauso bakoitza fokupean jartzea”, dio Gaztañagak. Tinko kritikatu du egoeraren errudun sortzaileak baino kultur politika eza dela eta norbanakoen gaintetik pisua kendu behar dela.

BABESLETA:



MADDI ALTUNA GALFARSOHO

Ningra ere hasia da prekarietatearen lokatza sentitzen, oraintsu atera baitu lehen kanta. Politika falta nabarmena dela dio eta dirulaguntza sistemak musikarien arteko lehia areagotu baino ez duela egiten. Sorkuntza profesionalizatzeko beharra nabarmendu dute hiruek

“Duela 20 urte Negu Gorriak kontzertuetara euskaraz ez zekien jendea joaten zen. Orain ere gerta daiteke, baina esango nuke egun euskaraz aritzen garenon entzuleak euskaldunak baino ez direla”

Jurgi Ekiza, Willis Drummond

eta COVID-19ak agerian utzi duela beharrezkoa dela zirkuitu propioa izatea. “Aretu profesionalak behar ditugu, agenda bateratua. Orain, esaterako, kontzerturik ez dugunez ez dugu nahikoa diru biltzen, eta laguntzak ez dira iristen”, azaldu du Gaztañagak.

ERREFERENTEEN BEHARRA

Erreferentzia eskasiaren aurrean berriak sortzeko beharra adierazi du Ningrak, musika estilo urbanoetan batez ere: “Normala da gazteek gaztelaniazko musika entzutea. Ia ehun artistatik bik baino ez dugu euskaraz sortzen. Ez gaituzte ezagutzen”. Gaztañagak ere uste du egun emakume sortzaile gehiago izatea oso garrantzitsua dela lokaletan entseatzen hasi berriak diren gazteen-tzat, bestela ez dagoela “zeri heldu”, iparrorratzik gabeko jarduna izan baitaiteke. Halaber, raplariak ez du uste euskara muga denik erritmo zehatz bati jarraiki gauza ederrak sortzeko, ezta egungo letrak kontzientzia gutxiagokoak direnik ere. “Orain egungo kezkei buruz abesten dugu. Duela 20 urte beste egoera bat zen, ez egungoa baino kontzientzia gehiagokoa. Gauzak aldatu diren heinean, letrak ere aldatu dira, baina konpromisoa bera dela esango nuke”.

Ekizak ere uste du jendeak gaur egun “pisu handia” ematen diola letren esanahiei eta horren adierazle dela euskarazko rapa bezalako generoek izan duten arrakasta: “Euskara maila igo delako ere hasi dira halako estiloak ugaltzen. Lehen, agian, gizarteari gehiago kostatzen zitzaion letrok ulertzea, baina euskaraz geroz eta jende gehiago alfabetatu den heinean, erakargarriagoak egin zaizkigu halako doinuak”. ●

Hondarribia
euskaraz bizi



Artikulu hauek erositako
ekarpen ekonomikoa
egingo diozu

**Bilboko Mbolo Moye
Doole** elkarteari.

Atera aldarria kalera
euskaraz eta wolofez!

24€



8€

15€

Eskaerak egiteko:

943 37 15 45
argia.eus/azoka

HILEKOA EVAX-EN IRAGARKIETAN

HEGALEKIN EDO GABE, BETI ODOLETAN

Hilekoari dagozkion produktuak ekoizten dituen Evax enpresak hilekoaz ez beste hitz egiten du bere iragarkietan. Eredu bati jarraitzen dio, emakumea ahultzen duen nortasun femenino konkretu bat bultzatzen, hilekoa ezkutatzen eta gorputzak merkantilizatzen dituen.

 AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

Iraide Gulin Garcia abadiñoarrak hilekoa izan du aztergai bere Soziologiako ikasketetako gradu amaierako lanean. Evax markak 2010etik 2019ra argitaratutako iragarkietatik hamar adibide hartu ditu eta haien eboluzioa landu, hasieratik zuen hipotesia baieztatzeko: “Evaxek ez du feminismoak izan duen bilakaeraren zantzurik aplikatu bere iragari-

kietan, logika patriarkal batean jarraitzen du”. Odola bera hautemateko ikuspegi desberdinak eta feminismoaren ideiak izan ditu ardatz, historikoki hilekoak izan duen bilakaeraren gainean galdera bati erantzuteko: “Posible al da hilekoaren odola espazio publikoan erakustea?”.

Bere hitzetan, ez. Eugenia Tarzibachi Buenos Aireseko psikologoa dakar gogora Gulinek, XX. mendetik sortu den hilekoa izateko “modu ideala” azaltzeko: hilekoaren forma modernoa. Ameriketako Estatu Batuak izan ziren lehenak “produktu intimoak” azaleratzen, ekoizten zituzten enpresak bertakoak zirelako. Medikuntzaren aurrerapenekin batera, mendearen erdialdean “higiene femeninoa” deituriko fenomenoak garatzen hasi zen eta behin erabiltzeko konpresa eta tanpoiak sortu zituzten. Gorputzari buruz hitz egiteko eta pentsatzeko moduarekin batera, industria berri batek indarra hartu zuen eta horrela sartu ziren emakumea eta hilekoa publizitatean. Tarzibachiren hitzetan gorputz menstruatzaileak industriarako merkantzia bihurtzen hasten dira, gorputz horien kontrola bereganatzeraino.

Espainiako Estatuan, hilekoarentzako produktuak saltzen dituen markarik

ezagunena da Evax, Ausoniarekin batera; berea da merkatuaren %25-30. Kontuan izanik munduko biztanleriaren %26ak hilekoa duela, 1.800 milioi pertsona inguruk orotara, eta bizitzan batez beste 10.000 tanpoi edo konpresa erabiltzen dituela, agerikoa da enpresa horiek irabazi handiak lortzen dituztela bezero dituzten emakumeengandik. Aipatzeko da ere ingurumenari eta osasunari egiten dioten kaltea, konpresaren %90 plastikozkoa den heinean, eta soilik Espainian urtean 3.000 milioi tanpoi botatzen direla kontuan hartuta.

KONTZEPTUA EROSTEKO NAHIA

1968an sortu zen Evax, Espainian konpresak salgai jartzen hasi ziren garaian, eta hamar urte geroago egin zituen lehenbiziko iragarkiak. Egun, aipatu bezala, liderra da produktu hauen salmentan; hark eta Ausoniak dute telebistako publizitatearen monopolioa. Hartzaileen begietatik “aurrerakoa” da, sortu eta hamar urtera publizitatara jauzi egin zuelako, auzi hau lehen aldiz publiko eginez. Zein erantzukizun dauka, baina?

“Publizitateak paper garrantzitsua betetzen du errealitatearen eraikuntzan”, dio Iraide Gulinek. Hilekoa prozesu so-



EZINEZKOA.

Hilekoa dutenean ere ezinezkoa praktikatzeko gogoia duten emakume akrobatikoak ageri dira Evaxen iragarkietan. Odolaren arrastorik ez.

zial, kultural eta politikoa dela iritzi du eta publizitateak, Evaxenak kasu, ezinbesteko eragina izan duela hilekoarekiko daukagun ikuskera zein bizipenean. Iragarki hauek Espainian zabaltzen hasi zirenean erreferente bihurtu ziren emakume askorentzat, baina publizitatearen tranpan erorita: produktua bera baino, haren esentzia eskuratu nahi zuten. Eta zein da Evaxek saltzen duen eta denok eskuratu nahi dugun kontzeptua?

“Evaxek enpresa kapitalista patriarkalaren logika jarraitzen du. Ordena sozial jakin bat irudikatu eta bizi garen munduari forma eta izaera ematen dioten erritualak sortzen ditu. Gorputz idealaren sortzaileak dira: emakume zuri, gazte, argal, altu eta erromantikoak”, adierazi du soziologoak. Era berean, publizitatearen hastapenetatik orain arteko bidean hilekoaren odola eta zikloak ezkutatu egin dituztela argudiatu du, higienearen izenean garbitasuna, ongizatea, lasaitasuna, segurtasuna eta erosotasuna bezalako kontzeptuak gailenduz. Bizitza estilo hori erosi nahi du produktu hauen kontsumitzaileak, hilekoaren beraren irakurketa hori bere gorputzera eraman ez eta, finean, emakumearen identitate hori eraikiz, sexualitatearen eta osasu-

naren ulerkera desegokia bereganatuz eta higienearen edo garbitasunaren kontzeptu okerra sinetsiz. Noski, hezkuntzak eta kulturak daukaten eragina ere kontuan hartzen du abadiñoarrak. Hilekoaren sozializazioa balore matxistetan ematen dela argudiatzen du.

EUFEMISMOAK, ARGIA AZALDU ORDEZ

Emakumeon gorputza publizitatean beti egon da hipersexualizatuta, baina hilekoa ez da sekula sexualitatearekin lotu: “Nazkarekin lotuta dagoen momentutik ezin da erotismoarekin lotu”, Gulinek dioenez. Azaldu digu hainbesteko estigma dagoela, mundu irreal bat sortzen duela honi buruzko publizitateak. Aztertu dituen iragarkietan, bakar batean ere ez da odola azaltzen eta ez da hilekoari buruz hitz egiten. Konpresa eta tanpoiak saltzeko eufemismoak erabili ohi dituzte, horri buruz zuzenean hitz egitea bekatua balitz bezala. Odola erakutsi dutenean, esaterako, urdin kolorekoa irudikatu dute,

eta ez gorriaren indar eta sinbolismoarekin. Garbitasunaren iruditegia azaldu nahian margotzen dute urdinez; itsasoa, ura, zerua edo airea. Justu kolore beroenetik hotzenera egiten dute salto. Evaxen iragarkietan kolore gorria azaldu bada, odola ez den beste elementuetan azaldu da: soinekoa, zapatak, ezpainenakoa, pareta... Urteak pasa ahala hori ere desagertu egin da, kolore deigarri eta artifizialengatik trukatur, are surrealistagoa eginez, berez, naturala den zerbait.

Azken urteetan bai-na, aldatu da zerbait. Honi guztiari buruzko publizitatea 20ko eta 40ko hamarkadetan

higieneari eta babesean oinarritu bazen –publizitatea zegoen lekuetan–, 60ko hamarkadatik aurrera emakumearen askapenaren diskurtsoa kapitalizatu zuten “merkataritzako feminismo” gisa.

Honekin, itxura hobetzea eta ondo sentitzea bihurtu ziren mezu nagusiak. Azken hamar urteetako aldaketa nagusia, beraz, emakume protagonisten –aktoreen– jarrerara bera izan da.

“Hilekoaren odola eta erditzearen odola zikintasunarekin lotzen dira. Gerrako pelikuletan, ordea, normal agertzen da eta harrotasuna eta indarra adierazten ditu”

Iraide Gulin Garcia

Feminitate tradizional batetik emakume modernoaren esentziara salto egin du Evaxek. Gorputzen estereotipoa ez du inoiz ere aldatu, ezta hilekoa tratatzeko ikuspegia ere. Egungo kontsumitzaileen begietara egokitu behar izan du, ordea, eta kontzeptu berri hori azaleratu: emakume modernoa. Takoiak, gonak eta ezpainetakoak ezabatu dituzte eta segurtasuna duten emakumeak ageri dira, independenteak, akrobatikoak eta ezinezkoa praktikatzeko gogoia daukatenak hilekoa dutenean, beti ere, garbiak eta usain onekoak. Azken kontzeptu horiek hilekoarekin bat ez datozen eta Evax produktuek ekarriko dutena bailiran.

Hau guztia emakumeon erreferente izatearen beldur da Gulin, hilekoa bizitzeko eran iragarkiek izan dezaketen pisuaz jabetuta: "Hilekoa ukaziotik tratatzen da eta tabu bihurtzen dute. Gure gorputz eta prozesuetatik deskonektatzen gaituzte. Espazio publikoak gure hilekoari buruz esaten duenak gure bizitza baldintzatzen du. Hilekoa zerbait intimoa izateaz gain, kolektiboa da". Honekin batera ikerketaren garrantzia azpimarratu nahi izan du: "Orain arte gutxi ikertu da honi buruz, eta orain gaiaz hitz egitea garrantzitsua iruditzen zait". Osatu duen lana ikerketa berriak abiatzeko baliabide izatea espero du, hilekoaren esanahi berriak telesail, zinema edo komunikazio birtualetan integratzearekin batera.

ODOL GORRIKOAK

Publizitatea, ulertuta informazioaren, pertsuasioaren eta ohitura bat aldatzearen arteko zubi gisa, gizarteak isiltzen duena azaleratzeko komunikazio tresnatzat ere har daitekeela idatzi du, Evaxek hilekoaren kasuan egin zuen bezala. Karen Houpert aditu ingelesaren hitzetan, produktu "femeninoak" sortu dituzten enpresek ezkutatzaren diren ezaugarri horien lepotik bizi dira. Ezaugarriok interpretatu eta haieten sostengatzen dira.

Argentinan egiten ari diren bezala, tanpoi eta konpresak saltzen dituzten enpresek hilekoaren zikloaren naturalizatzeko prozesua ematearen aldekoa da Gulin. Odola erakutsi eta mezuak aldatuko dituen publizitatea positiboki baloratzen du: "Publizitate feminista egin beharko genuke, ziklikoak garelako adierazi eta emozio ezberdinak agerrarazi. Australian, adibidez, "odol normala" deituriko kanpaina bat abiarazi zuten, non hilekoa guztiz normaliza-



IRAIDE GULIN. Abadiñoarrak "Posible al da hilekoaren odola erakustea espazio publikoan?" galderaren bueltan osatu du EHUko Soziologiako gradu amaierako ikerketa-lana.

tuta zegoen testuinguru bat irudikatzen zuen: emakume naturalak, edonolakoak, adin desberdinetakoak ageri dira hilekoari buruz publikoan hitz egiten eta ezkutatu gabe. Konpresa bat azaltzen da, odol gorri zikintzen. Dena den, kanpaina horren helburua ez da produktuak saltzea; hortaz, "legitimoa" da hilekoari ematen zaion adiera. Saltzera begirakoa balitz ez luke interes bera izango eta, hortaz, ez luke horrela tratatuko gaia.

Gulinen ustez, benetako odola edo likido gorria agertu beharko litzateke, eta ez urdina, erakutsi ohi duten moduan. Lohi urdinaren eufemismoak kolore gorriaren indar eta sinbolismo handia deuseztatzen du, hilekoa duen gorputzari berari kenduz ezaugarri hori, hau da, ahulduz: "Emakumeen odola arriskutsua da, ezkutatu egin behar den zerbait da.

Hilekoaren odola eta erditzearen odola zikintasunarekin lotzen dira. Gerrako pelikuletan, ordea, normal agertzen da eta harrotasuna eta indarra adierazten ditu". Fikzioan odola erakusteko inolako arazorik ez dagoela dio, baina eszena erreala baldin badira bestelakoa dela kontua: "Tabu oso gogorrek agintzen dute zineman, publizitatean, ikus-entzunezkoetan, albistegietan, egunkarietan eta abarretan".

Era berean, bulba duten protagonista ezberdinak agertu beharko liratekeela uste du, interseksionalitatea kontuan hartuta. "Espazioari begira, odol jariora edozein lekutan eta edozein momentutan agertu daitekeela ere adieraztea garrantzitsua iruditzen zait, baita odol isuriek zikindu gaitzekela ere", esan digu. "Mantxa gorriak agertu behar dira. Nork ez ditu arropak zikindu hilekoaren odolarekin? Horrela, hilekoa patologizatzen baino, naturalizatu egingo genuke eta bide horretatik joan behar dugu, hilekoa ez ulertzeko gaitz edo zikinke-ria bezala".

Hilekoa naturalizatzeko interesa eta hari esker irabaziak lortzeko bateragarriak ote diren galdetu diogu. Gulinek aipatzen du edozein kulturatan dinamika sozialarekin loturik dagoela gorputza, eta ekonomiaren eta kontsumoaren objektu dela. "Egia da, emakume librearen izenean, produktua soilik saldu nahi duten enpresak egon daitezkeela atzean, interes ekonomikoak dituztenak. Evax izan daiteke horietako bat", dio. "Baina badira ere bai enpresa sozial edo kooperatiboak, bestelako eredu aldarrikatzen dutenak. ●





Pétroleuses, Parisko Komunako mitoa



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Paris, 1871ko martxoaren 28a. Herriarrak altxatu eta hamar egunera, Parisko Komuna eratu zen, langile klasearen lehen gobernutzat jotzen dena. Loialistek Komuna gogor erreprimitu zuten eta, bi hilabete eta gero, maiatzaren 28an, gobernua bertan behera geratu zen. Maiatzaren azken aste horri Aste Odoltsua esango zioten: milaka komunero atxilotu zituzten, edo epaiketarik gabe exekutatu. Eta liskarretan Parisek su hartu zuen.

Sute horien errua nagusiki *pétroleuse* edo Komunaren aldeko emakume pironanoei egotzi zieten. Suteak pizteko petrolio erabiltzen omen zutelako esan zieten horrela. Komunaren amaieran ehunka atxilotu eta Versaillesera eramane zituzten bertan epaitzeko; beste asko epaiketarik gabe hil zituzten. Eta hurrengo hilabetetan hiriburuan likido erregaia saltzea debekatu zuten, emakume petroliozaleek beren jardunari berriro heldu ez ziezaioten.

Prosper-Olivier Lissagaray (1838-1901) gertatutakoaren lekuko izan zen eta Komunaren kronika idatziz jasota utzi zuen. Hauxe idatzi zuen ustezko su-piztailerari buruz: "Gaizki jantzitako edozein emakume, esne-marmita bat edo botila huts bat zeraman edozein, *pétroleuse*-tzat jotzen zuten, arropak indarrez erauzten zizkieten, hurbilen zegoen hormaren kontra jartzen zuten eta hantxe bertan tiroz hil". Beraz, kronikalariak hasieratik bertatik jarri zuen zalantzan



EZKERREAN, TULLERIES JAUREGIA SUTAN 1871KO MAIATZAREN 24AN. ESKUINEAN, 'PÉTOLEUSE' BATEN KARIKATURA, URTE BEREKO UZTAILEAN BANATUTAKO POSTALEAN.



LEÓN SABATIER ETA ALBERT ADAM / BERNARD

emakume haien erruduntasuna. Baina Lissagaray sozialista iraultzailea zen, komuneroa, eta, hortaz, bere ikuspegi "lerrotua" ez zen luzaroan aintzat hartu. 1870eko hamarkadan bertan Maxime Du Camp idazleak Komunaren kronika "objektiboagoa" argitaratu zuen eta hor ere *pétroleuse*-en parte-hartzea ukatu zuen. Baina mitoak hazten jarraitu zuen.

XX. mende bukaeran, Komunari buruzko dokumentazioa desklasifikatuta, historialariek sakonago aztertu ahal izan zuten *pétroleuse*-en fenomeno, eta aurreko mendean Lissagarayk esandakoa berretsi zuten. Besteak beste, Robert Tombs eta Gay Gullickson aritu ziren dokumentazioa aztertzeko lanean eta ez zuten topatu *pétroleuse*-ek sutearen bat piztu zutela frogatzen zuen kasu

bat bera ere. Komuna amaitutakoan Versaillesen epaitutako ehunka emakumeetatik soilik gutxi batzuk kondenatu zituzten, guztiak komunaren aldeko ekintzengatik, baina bat bera ere ez suteekin lotuta. Aste odoltsuko sute haien erantzukizuna gatazkari berari eta, beraz, bi aldeei egotzen zaie nagusiki gaur egun. Gullicksonen ustez, *pétroleuse*-en mitoa Versailleseko politikarien propaganda kanpainaren parte izan zen. Komunaren erreformen aurkako keinua zen, aste gutxi haietan hartutako zenbait neurri emakumeen egoera zertxobait hobetzen zutelako. Garaipen praktikoa kaleetan lortzeaz gain, garaipen moralak ere nahi zuten kontserbadoreek, emakume komunero barbaro eta suntsitzaile haien gainetik. ●

Gutunak ukitu gabe destolesten

Gutunazal modernoak sortu baino lehen, gutunak modu konplexuetan tolestu ohi zituzten komunikazioa ahalik eta seguruen izan zedin. Orain, Massachusettsko Teknologia Institutuko ikerlari Jana Dambrogiok Brienne bildumako dozenaka gutun irakurtzea lortu du, gutunak ukitu gabe.

X izpiei eta toleste algoritmo bati esker, 300 urtez tolestuta egon diren eskutitzak birtualki destolestea lortu du. Ondo tolestutako gutunak eta bestelako dokumentuak irekitzea arrisksua izan ohi da, maiz hondatu egiten direlako; teknologia honi esker dokumentu askoren edukia ezagutu ahal da, ondarea suntsitu gabe. ●



UNLOCKING HISTORY RESEARCH GROUP

Lanak banatzerakoan plano emozionala eta arrazionala bereiztearen onurak

ARGIA ETA OLATUKOOP ELKARLANEAN

Aztiker kooperatibak egiten dituen proiektu gehienek lau-sei hilabeteko iraupena dute. Horrek dakar maiz errebisatu behar izatea hurrengo hilabeteetan izango duten lan karga eta langileen arteko lan banaketa orekatzea. Beraz, Aztikerren ohikoa da langileek hurrengo hilabeteetarako lanaldia murriztea edo gehitzea, eta malgutasun hori, ordutegiarenarekin batera, asko estimatzen dute, bizitzako beste alorrekin uztartzeko. Bidean gako bat deskubritu dute: lan-kargetan erantzukizun pertsonala eta kolektiboa bereizteak korapilo asko askatzen dituela.

“Aztikerren hiru hilero errebisatzen ditugu lanak eta lanaldiak, ea orekatua den, eta ea langileren bat ordu gehiegi sartzen ari den. Eta horrez gain, langileren batek eskaera egiten duenean ere momentuan eusten zaio gaiari: esaterako, orain langile batek eskatu du lanaldi osotik lau ordukora pasatzea lau hilabeterako, familiako beharrei erantzuteko”. Lanaldia gehitzeko ere egiten dituzte aldaketak: “Adibidez, lan gehiago sartu bada, agian bost ordutara dauden bi langileri proposatzen zaie bi hilabetez zazpina ordu lan egitea”. Azaldu dutenez, malgutasun handiz kudeatzen dute lan bolumenaren gaia, beti lehentasun gisa hartuta langileak epealdi horretarako dituen behar eta helburuak asetzeari, hori bai, taldearen egoera (hau da, beste langileen behar eta egoerak) eta lan-kargak kontuan hartuta.

“OSO KARGATUTA NAGO: ZER DA NIREA ETA ZER AZTIKERRENA?”

Taldeko orekak zaintzeko eta lanak birbanatzeko, dimentsio emozionala eta arrazionala bereiztea gakoa dela diote, eta horregatik, koordinazio bileretan hiru hilean behin eskema hau jarraitzen dute: lehenik hurrengo hilabeteetarako produkzio mapa aztertzen dute objektiboki, hau da, zein proiektu egingo dituzten, proiektu bakoitzak zenbat ordu eskatuko dituen lan fase bakoitzean, ho-



rretarako zein den lan banaketa eta ea lanak orekatuta dauden, langile bakoitzak zenbateko lanaldia izango duen... Ondoren dator eskaera eta proposamenen txanda, hau da, ea langile bakoitzaren nahiak eta behar pertsonalak asetzen al diren, edo lana birbanatu behar den, edo bestela errefortzuak bilatu. “Baina bereizten ditugu plano emozionala eta arrazionala, bestela elkarriketetan nahastu egiten gara. Bi dimentsio horiek esplizituki bereiztea urrats bat izan da”.

Hamabostean behin egiten dute produkzioaren jarraipen bilera, eta hor ikusten dute ea aurreikusitako orduetan hanka sartu duten, hau da, langileren bat aurreikusitakoa baino ordu gehiago sartzen ari den. Kasu horietan, idazkariak proposatuko dio langileari gehiegi sartutako ordu horien truke noiz jai egin, edo lanaldia nola murriztu bolada batez. “Asmatzen dugu orekatzen, baina beti daude boladak, pertsona bat kargatuko dena. Eta kasu horietan, asmatu dugu bereizten zer den pertsonala eta zer Aztikerrek sortutakoa; izan ere, pertsonaren izaerak badu bere eragina”. Adibidea jarri dute: “Norberaren izaeraren arabera, gustuko lan batean ari garenean sarri emozionatzeko gara eta bezeroari esaten diogu ez dakit zer egingo dugula, eta hori egiteak ondoren pertsonalki asko eskatzen digu, lehendik adostuta ez zegoena”.

Kargatuta dauden egoeretan, gaia talde handira eraman beharrean, saiatzen dira lankideren bati laguntza eskatzen eta hausnarketa egiten: “Egoera honi, pertsonalki nik zer gehitzen diot eta beraz ni zeren arduradun naiz? Eta aldiz, zer da Aztikerrena eta beraz zer eskatu diezaioket Aztikerri konpontzeko?”. ●

[a]

aztiker
SOZIOLOGIA IKERGUNA

**AZTIKER SOZIOLOGIA
IKERGUNA**

aztiker.eus

Zer egiten du: Gizarte ikerketa aplikatuak eta esku-hartzea.

Langile edo bazkideak: 8.

Noiz sortua: 2000n.

Egoitza: Andoain.

Harremanetarako:
idazkaritza@aztiker.eus

PRAKTIKALDIA



Oihane Arretxea
eta Ixone Arana
Argiako erredakzioan
praktikaldia burutzen.

DANI BLANCO

Lau hilabetez ARGIAN

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Otsailean sartzearekin batera bi sinadura berri hasi ziren agertzen argia.eus atarian. Bertan pixka bat ibiltzen denak ongi jakingo du joan-etorrian badabiltzala zenbait lagun, kazetaritzaren bueltan lehen pausoak ematen ari diren gazteak sarri, ARGIAra praktikak egitera gerturatu direnak. Ixone Arana eta Oihane Arretxea dira lau hilabeterako etorri direnak. Beraiekin hitz egin dugu, pixka bat ezagutzeko asmoz.

Aukera desberdinen artean ARGIA aukeratu duzue praktikaldirako. Zergatik?

Ixone Arana: Astekari bezala oso erakargarria egiten zait ARGIA, erreportaje interesgarri eta sakonak argitaratzen dira; eta ezin ahaztu Euskal Herri mailako komunikabide garrantzitsu bat dela. Kazetaritza independentea egiten duen komunikabidea, herriarekiko interesa erakusten duena... puntu garran-

tzitsuak dira niretzat, eta oso erronka ederra iruditu zitzaidan kazetari moduan bertan trebatzeko aukera.

Oihane Arretxea: Gradua amaitu aurretik praktikaldiran bat egingo nuela argi nuen, baina soziologia ikasketak egiten ari nuen, ez neukan buruan kazetaritza praktikak egiterik. ARGIAren aukera zabaldu eta erakargarria egin zitzaidan, bai bainekien nire intereseko gaietan murgiltzeko aukera izango nuela, ordura arte probatu gabeko perspektiba batetik.

Zer da bertan jasotzen ari zaretena?

Oihane Arretxea: Pandemia testuinguru honetan zaila da leku berrietan eroso sentitzea, baina harrera oso ona egin digute hasieratik eta pixkanaka ari gara harremanak sortzen. Gauzak lasai azaltzeko eta erakusteko prest egoten dira beti eta hori asko eskertzen da, bereziki kazetari lana zeharo berria denean norberarentzat.

Ixone Arana: Idatzizko kazetari-tzan trebatzen ari naiz eta asko laguntzen didate. Beste komunikabide batean praktketan egon ostean, ARGIA asko eskertu dudana gauza bat da ikasten laguntzen digutela, kazetaritzaren munduan benetan zertan eta nola hobetu dezakegun esaten saiatzen dira momentu oro.

Zein gaietan sentitzen zarete eroso?

Oihane Arretxea: Gizarte gaietara jotzen dut normalean. Gehienbat esperientzia soziokomunitarioetan jarri dut azken aldian arreta. Halere, denetarik lantzea gustatzen zait, arlo desberdinetan murgildu eta gauza berriak ikastea beti da interesgarria.

Ixone Arana: Kulturara jotzen dut nik eta gustatuko litzaidake zenbait komunikabidetan merezi duen espazioa eskaintzea kulturari. Horretaz aparte, azken aldian piztu zait nazioarteko edo politika gaietako interesa. ●

GREZIA HEMEN. GOMAK, TIRRIMINTINAK ETA ZURAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Suaren landarea esan dakioke pistatxondoari (*Pistacia vera*), izan ere fruitua pilatuta dagoenean bere kaxak su har dezake eta janda gure espeziearen arraren tentetzeari laguntzen dio. Beroaren landarea ere esatea gaizki ez. Beroa atsegin du eta beroa hartu eta ematen du.

Pistatxondoak ere badu familia. *Pistacia* generoan 10 espezie ezagutzen dira, denak lurralde beroetakoak. Batzuk basamortuko landareak dira edo udako muturreko lehorteari egokituta daude, eta, landare gutxi bezala, gatz duen lurlean bizi daitezke. Basamortuetako klimaren muturreko tenperatura-ohituta daude, udan 40 gradutik gora eta neguan -10etik behera.

Genero honetako bi espezie eta bien arteko hibridoa ezagutzen dira Euskal Herrian. Bata legeltxorra edo lekeltxorra edo txarneka edo lurlastana edo lerrina, hau da, *Pistacia lentiscus*. Grezia klasikoan bere alearekin gomagoxa edo txiklea egiten zuten, baita gaur egun ere. Itsasaldeko lurralde gozoak maite ditu eta batez ere Mediterraneo inguruan topatuko dugu. Klima eta toki zakarragoetara ohitutakoa da bere bes-



tengusina, ahuntzadarra edo *Pistacia terebinthus*; legeltxorrak baino hezetasun handiagoa behar du eta mendi mutur altu eta hotzetan gustura bizi bada ere, eguzkizalea da. Ahuntzadarra edo ahuntzadar-belar edo ganauskia esaten zaio. Ahuntzadar izena hostoetan zorri batek kosk egin ondoren luzatzen duen ahuntz adar itxurako hantura edo kozkor batek dator; haritzak izaten duen kuku sagarraren eran sortutakoa, baina forma berezi horrekin. Ahuntz adar hori *Baizongia pistaciae* zorriak sortzen du. Landare guztia usaintsua da, erretxin

usain mingotsa du. Honekin ere gomagoxa edo txigoma egiten da. Robin Lane Fox historialari klasiko eta lorezaintzan zailduriko idazle ingelesak bere *The Classical World* (Mundu Klasikoa) liburuan dio Kristo aurreko VI. mendean, Pertsia oraindik inperio garrantzitsua ez zenean, bertako erregeak tronura igo zenean esne mindua edan eta ahuntzadarraren hostoak murtzikatu edo mastekatu zituela. Ahuntzadarraren erretxin bereziarekin tirrimintina edo tiribintina ere egiten da. Hiztegi batek dio tirrimintina lerretatik (*Pinus spp*) ateratzen den ubil lerdotsua dela. "Tirrimintina" eta "tiribintina" hitzetatik datoz tirrimintondo, teremintondo eta tiribintinondo; ahuntzadarraren *terebinthus* horrekin lotzen ditut nik. Ganauskiarekin egindako likurta ere jaso dago gure hiztegitan, hau da goma edo laka edo berniza.

Erretxin hori ematen duen zura ere ez da nolanahikoa izango. Virgilio idazle erromatarrak Kristo aurreko I. mendean idatzitako *Eneida* epopeian aipatzen du "arteak ezpelean (*Buxus sempervirens*) edo Oricoko ahuntzadarrean txertatutako bolia". Bolia bost, baina zur hori gustura eskuratuko nuke. ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Bidali zure galdera:
bizibaratzea@bizibaratzea.eus



Bulboak erosi ditut. Loreontzi txikietan datoz. Jazintoak laster loratuko dira, besteak loretan daude. Aldatuko ditut pote handiago batera? Ez daukate ia lurrik.

✍ Arantza, Sondikatik

Neguan loratzen diren erraboilak izango direla pentsatzen dut.

Dagoeneko lorea luzatuta edo irekita baldin badute, bere horretan utzi. Lorea zimeltzen denean orduan lur gehiago izango duten loreontzian edo lurrean landatu. Lorearen ondoren haziko diren hostoak ondo hazi eta agratzea komeni da. Hosto horiek erreserbaz beteko dituzte berriro lurpeko erraboilak, hurrengo urtean ere loreak eman ditzaten.

AKILOUKAP

AHUNTZ ESNEAREKIN EGINDAKO XABOI ARTISAUAK



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Lasako Yon Hourcadek abiatutako proiektua da Akiloukap. Beren buruentzat kamisetak eta txapelak egiten hasi ziren lehenik, bere etxola, inguruko mendiak eta ahuntzak irudikatuz. Baina ingurukoei arropak gustatu eta eskatzen hasi zitzaizkiela ikusita, proiektua zabaltzea pentsatu zuen. Duela urtebetetik, berriz, bestelako egitasmo bat ere gehitu diote Akiloukapi: etxeko ahuntzen esnearekin xaboi artisauek egiten hasi dira.

PIRENAIKA AHUNTZAK BALIOAN JARTZEN

“Ahuntzak nituen lehenagotik eta beti egin nahi izan dut zerbait haiekin, horrela bururatu zitzaidan xaboiak egiten hastea”, azaldu du Hourcadek. Galtzen ari den antzinako pirenaika arrazarekin egiten du lan Lasako gazteak; Frantziako Estatu osoan 4.000 buru inguru besterik ez omen dago. “Ez du esne gehiegi ekoizten ahuntz arraza honek, baina xaboiak egiteko ezaugarri aproposak ditu: kalitate handiko esnea da urin asko duelako, eta hori oso ona da larruko eritasunak lasaitzeko”, dio ekoizleak.

28 ahuntzeko taldea du Hourcadek, urte osoan mendian libre. “Pirenaika oso landa-arraza da, mendian egoten da urte osoan, eta oso onak dira gure zelaia garbi mantentzeko”. Hain zuzen, horixe zen gaztearen helburu nagusietakoa proiektua abiatzerakoan: “Mendiak pix-



kanaka husten ari dira Iparraldean, eta hori asko ari da nabaritzen, lurrak sartzien baitira. Su eman beharrik gabe, gure ahuntzek bazter horiek guztiak garbitzen dituzte”. Arraza balorizatzen asmoz, gainera, inguruko beste ahuntzain batzuekin elkarlanean ari da talde bat sortzen. Pirenaika arraza ezagutzera ematea eta haren inguruan sortutako aurreiritziak aldaraztea dute asmo.

ESKUZ EGINDAKO XABOIAK

Xaboiak proiektua martxan jarri zuenean horiek egiteko gunea jarri zuen martxan Hourcadek etxean. “Antxumee bi hilabete dituztelarik mendira igo-tzen naiz, ahuntzak goizetan jetzi eta arratsaldean egiten ditut xaboiak”, dio. Prozesu osoa eskuz egiten du, modu artisauean eta osagai guztiz naturalak

erabiliz. Ahuntz esneaz gain, usain desberdinetako olio esentzialak, oliba olioia eta sosa kaustikoa daramate xaboiak. “Osagai biologikoak darabiltzagu horiek egiteko. Nik momentuz ez dut bio labelik, baina asmoa da horretara pasatzea”. Xaboiak larruarentzako propietate oso onak dituztela azaldu du gazteak, batez ere eritasunak dituztenentzat.

Ez du inguru hauetan pirenaika arrazako ahuntzen esnearekin xaboiak egiten dituen beste inor ezagutzen, ideia internetetik hartu zuen Hourcadek beste arraza batzuekin gauza bera egiten zutenengandik. Orain, akiloukap.fr web-gunean saltzen ditu bere produktuak, eta otsailaz geroztik Nafarroa Behereko hainbat azokatar joaten da. Udara begira toki gehiagotara mugitu ahal izatea espero du. ●

ELIKADURAREN TOP 5

- 1 Ekologikoak
- 2 Bertakoak
- 3 Freskoak
- 4 Sasoikoak
- 5 Lehen sektoreak hornituta

Nafarroa Beherea
CPAEN NNPEK
EUROPEAN UNION

eko-logikoak
para vivir mejor



LOURDES IRIONDO

Ez Dok Amairu-ren gidaria

Kantagintza berriaren izen lehenetarik bat izan zen. Arrakasta itzelezkoa izan zuen bakarlari, eta Ez Dok Amairuren partaide eta eragile izan zen. Iaz, Xabier Leteren omenezko ekitaldiak batean eta bestean egin zirenean, hantxe izan zen beti edo gehienez Lourdes Iriondoren arima.

MIEL ANJEL ELUSTONDO

Euskarazko giroa bertatik bertara eta zuzenean bizi izan zuen Joxemari Iriondo kazetariak Loiolako Herri Irratiaren leihotik. Iragan mendeko 50eko hamarkadaren amaieran nahiz 60koaren hastapenean sortuak ziren zenbait irati, eta Azpeitiako Loiolakoan ari zen bera. Irratiak ez beste ere sortu zen, ordea, garai hartan, Iriondok 2014an *Euskal musika giroa 60ko hamarkadan* artikuluan idatzi zuenez (Jakin, 200. zenbakia): “Liburu berriak argitaratzea, aldizkariak suspertu eta sortzea, dantzari eta txistularien lehiaketak antolatzea, abesbatzen eta otxoteen arteko zeingehiagokak, euskal kantuari irauli handia ematea, ikastolak sortu eta suspertzea, antzerki taldeak berriro edo sortzea... Mila ekimen, mila iniziatiba”.

Musikaz den bezainbatean, berriz, koru eta abesbatzen tradizioa errota zen, baina lege zaharreko kantagintzaren aurkiak bazuen bere girbina, Iriondok dioenez: “*Itsasoan laño dago, Maritxu nora zoaz, Ara nun diran, Zibilak esan naute, Gitarra zartxo bat...* aspergarri egiten hasi zitzaizkigun, edo [haiek aditzen] erabat aspertuak ziren gure irati-entzuleak. Eta halaxe hasi zen euskal kantugintza berriaren mugimendu hura”. Ez Dok Amairu sortu baino lehen, alegia.

Nonbait ere, euskarazko kantagintza berria Bizkaian eta Bilbon hasi zen loratzen 1957-58an. Kantarietan ziren, esaterako, Robles-Arangiz zortzi neba-arrebak eta, 1960an, esaterako, kantaldia egin zuten Robles-Arangiztarrek

eta Txabi Villaverdek Arboti-Zohotako Euskaltzaleen Biltzarrean. Entzuleen artean izan zuten Mixel Labeguerie, “bakarrik eta gitarra baten laguntasunez azaldu zen lehenengo kantaria”, Iriondoren arabera. 1964-1965ean plazaratu zen Labeguerie, eta plazaratu zen Lourdes Iriondo...

LOURDES IRIONDOREN AGERTZEA

1965eko urte hasieran Andoaingo ikastolaren alde kantatu zuen lehenbizi Lourdes Iriondok, eta ondoren, Tolosan eta Villabonan. Hala ere, Lourdesen egiazko hasiera 1965eko maiatzaren 6an, hileko lehenengo igandean etorriko zen, Aizarnan, Gazteriaren egunaren kariatara. Arrakasta itzela izan zuen kantariak, eta Joxemari Iriondok hurrengo egunean Loiolako Herri Irratian zenbait kanta grabatzeko eskatu zion. “Baietz erantzun zigun asko pentsatu gabe eta, halaxe, Aizarnan kantatu zituen lau kantu ederren ustekoak grabatu genizkion astelehen goizean: *Abesten dizut, Jauna; Haurra sehaskan; Arren, Jauna; Amatxo laztana*”. Eta Loiolako uhinetatik euskal herrietako mundura. “Astearte goizeko irratsaioan hasi ginen kantu haiek irrati ematen, eta handik atzera egunean hiru-lau bider eskaintzen genizkien entzuleei Lourdesen perlatu. Gogoan dut zer-nolako arrakasta eta itsumena sortu zuten Lourdesen kantuek gure entzuleen artean. Astearte goizean hasi ginen erabiltzen, eta handik aurrera ez zuten deskantsu handirik izan”.

Garagarrilean *Zeruko Argia*-ren orrialdeetan zen Lourdes Iriondo.

1965, GARAGARRILAK 13

Zeruko Argian egin zioten lehen elkarrizketa dugu ekainaren 13an argitaratutakoa. “Egunari egunekoa” sailaren barruan ageri da, izenburu honekin: “Mari Lourdes Iriondo erriz erri. Dei guztiei baietza ezin emanik”. Jarraiko Agirre da sinatzaile; Iñaki Beobide, Joxemari Iriondok jakinarazi digunez.

“Azken aldi ontan, eguneko giroari jarraituaz, euskerazko edo euskeratutako abestiak maiz entzuten dira. Batzuek San Remo, Benidorm edo orrelako sari-keretan leendabizi izendatuak, eta besteak au dala edo ori dala, ao guztietan dabilzanak”, hasi da idazten kazetaria, Lourdes Iriondori sarrera eginez: “Gaur dakarkigun neskata au ere gitarratxo lagun dualarik, erri bat eta besteko dei guztiei ezin baietza emanik arkitzen da: ainbeste dei bai ditu”. Dei batetik bestera dabilela ere, Lourdes Iriondok tartea egin dio *Zeruko Argiaren* elkarrizketa eskaerari. Eta dio, bere hasieraz: “Gaixorik egona naiz luzaroan eta, bitartean, ikasketak utzi bearrean aurkitu nintzan. Urtebete da gitarrarekin ekin niola”. Lourdes Iriondoren hitz horietan bada mamirik franko: “Gaixorik egona naiz luzaroan”. Izan ere, bihotzeko eritasuna antzeman zioten gaztetan, eta, ebakuntza gaitza jasorik, inork baino gehiago begiratu behar izan zuen bere burua Iriondok, bizi guztiko.



ARTURO DELGADO, 1976

Gaixoaditik suspertzean hartu zuen gitarra, inoiz utziko ez zuena. Berak sortuak zituen bere kantetako hitz eta doinuak. Baina. "Letra, ordea, sortutako abestietan, nik erdaraz egiten dut, eta gero nere lengusu Joxe Maria Iriondok euskeratu". Ez zen nekezia handian ibiltzen kanta sortzeko garaian: "Asarre nagoenean, gitarra ta manetofoia artu, eta abestuaz, abestuaz, sortzen ditut".

Lourdes Iriondorena kantagintza berria zen, eta horretaz jabetuak ziren batzuk eta besteak. Herriak berritasun hura gustuko ote zuen kazetariak galde-turik, Lourdesen erantzuna: "Ondorenari begiratuaz baietz esan bear. Abesten dan erri bakoitzetik eskutitzak beriala iristen dira, zorionak emanaz eta erabat letrak eskatuaz. Erria, abesti berri auen egorri da, ta tamalgarria izango litza-ke guk ez emategatik, irrati edo telebi-sio bidez ikasitakoak bakarrik abestuko balitu". Lourdesek artean ez baitzekien Loiolako Herri Irratian bere lehengusu Joxemari Iriondok zein haize emango zien bere kantei.

Garaian garaikoa, eta xalotasuna da inozentzia bezain handia. Elkarriketa janzen duen argazkia, eskaintzaz dator: "Jarrai-koei, biotz biotzez. Mari Lourdes Iriondo".

1966, ABENDUAK 11

"Lourdes Iriondo, abeslari. Bihotza eta adimena bere abestietan. Bere bi diska agertuko dira egun gutxi barru" du izenburu *Zeruko Argiak* dakarren bigarren elkarriketak. A. J. Ergoienek sinaturik dator eta argitaratzekoak dituen diskoak dira aitzakia. "Bigarren aldia da aldizkari onen orrietan Lourdes'en iritziak agertzen dirala. Orain urte eta erdi, Lourdes abesten asi berria zenean, ementxe egin zitzaion lenengo alkarrizketa. Presentazio bat izandu zen hura. Gaur ez du Lourdes'ek presentazio-rik bear, aski ezaguna bai da Euskalerri guzian". Lourdes Iriondo euskaraz gitarrarekin kantatzen hasi ziren haien artean "lehenengo andereñoa, eta bakarra" zen, eta kazetariak "euskal publikoaren kezkarik" ez al zuen galdetu zion. "Ez. Euskal publikoa oso ondo portatu zen beti nerekin asieratik, eta konfiantza haundiarekin abesten nuen". Eta, kantatu, hasierako *Amatxo, laztana* eta gainerakoak baino kanta gogorragoak kantatzen hasia denean, 1966an: "Gogortasun hori

ez da nere abestietakoa bakarrik. Toki geienetan orrela da. Bear bada, lehenago abestia gauz polit bat bezela kontsideratzen zen. Esakizun aundirik gabeko gauz arin bat bezela. Gaur berri, esakizun aundiak ditu herriari kantatzen zaion abestiak. Beste kontzientzi batekin kantatzen da gaur. Herriaren problemak kantatzen dira... Abestia era askotakoa izan liteke. Abesti arina; maitasun abestia; dantzarakoa... milla eratakoa. Bainan gaur inoiz baino geiago, abestia herriari bere problemataz itzegiteko modu bat da, batez ere".

Kazetariak kantaria gehiegi nekara-zi nahi ez, beraz, eta amaitze aldera,

“

Maila handiko kantari
ez ezik, taldekideen
animatzaile, han eta
hemen antolatzen
ziren jaialdien
koordinatzaile eta
bideratzaile, eta
taldeko idazkari izan
zen Lourdes”

Joxemari Iriondo



ARGIAREN ARTXIBOA

Ez Dok Amairu taldeaz egin dio galde-
ra. Eta taldeari dagokionez erantzun
Lourdesek. "Euskal abestia galtzen ari
zala konturatu ginan. Aspalditik, gazte
jendeak irrati eta telebisiotan entzuten
zituen abestiak kantatzen zituan". Arra-
zoia, berri, "euskal gaztediari etzaiz-
kiola abesti zaharrak aski. *Boga-boga*
ez dala aski. Gaztediak garaiko abesti
berriak bear ditu. Ontaz konturatu gi-
nanean, euskal abeslari guztiak batu
egin ginan eta 'Ez dok amairu' taldea
sortu genuen (...) Antzinako abesti
jatorrak berpiztu egin nai ditugu
eta, era berean, abesti berriak sor-
tu, era guztietakoak (...) Gaurkoak
izan nai degu, ori da dena". Horra
Ez Dok Amairuren xedea.

Eta laster bi disko argitaratuko
zituenez, kazetariak haiez galde-
tu behar, eta horrek dakarkeen
ospeaz: "Nik ez det [fama] ame-
tsik, ez det fama desio; etzait ba-
tere ajola. Nik euskal publikoak
eskatzen ditalako abesten det,
eta orregatik grabatu ditut disko
auk, ez beste ezergatik... Euskal
abestia mundu guztian zabaltu
dedilla; ortan saiatu bear gina-
ke. Ori da 'Ez dok amairu'-koen
ametsa". Eta, zinez, ez zen debal-
detan ari, bazuen taldeaz hitz
egiteko bezainbat autoritate.

1967, OTSAILAK 19

Zeruko Argiaren azalera ekarri dute Lourdes Iriondo. Donostian egitekoa den Euskal Abestiaren III. Sariketa da aitzakia, ekitaldia baino zenbait egun lehenago Bilbon egindako entsegua, alegia. Xabier Gereño dugu kazetari lanetan. “*Zeruko Argia*’ko irakurleak eza gututen doguz ‘Ez dok amairu’ taldeko abeslariak. Eurek ibili dira gure uri ta errietatik euskal abesti barriak zabal-tzen. Euskal Abestiaren III. Sariketako kontzietoak antolatutako orduan, ezin itxi alde baten talde ontako abeslariak. Euren artean, bi aukeratu ziran: Lurdes Iriondo ta Benito Lertxundi”. Eta elkar-rizketa txiki bana.

Hantxe irakurriz jakin dugu: “Lurdes Iriondo, ‘Euskal Erri’ren nobia, Ares-ti’k deituten dautson lez”. Eta, besteak beste, bere kantagitzaren hastapenen zehaztasunak ematen dizkigu kantariak. “Orain urte bi, gitxi gora bera, ‘Gaztetxu naz’ abestuten ninzalarik, adiskide bat-zuk entzun neustien eta Andoain’en, jai baten abestuteko deitu. Au izan zan nire lenengo kontzietoa, benefikoa”. Harrez-kero, hoge bat kanta ere eginak zituen; azkena, Mao Zedongen poema baten hitzetatik abiatutik egin. Eta Gereñoren galderari, “Zenbat bider abestu dozu jendearen aurrean?”, Lourdes Iriondo-ren errematea: “170 bider, Euskal Erri osoan”. Galderarik ez hilabete lehenago Lourdesek aldizkarian bertan idatzitako artikulua: “Euskalerriko eskaleak”.

1966-1972, EZ DOK AMAIRU

Lourdes Iriondok *Kanta zaharrak* disko luzea argitaratu zuen 1968an, hain zuzen Xabier Leterekin ezkondu zen urtean. Ordurako, “Lourdes Iriondo” ez baina “Ez Dok Amairu” zen izendapen nagusi. Eta Joxemari Iriondori irakurriz jakin dugu zertan zen Lourdesen autoritatea: “Talde hartan, maila handiko kantari ez ezik, taldekideen animatzaile, han eta hemen antolatzen ziren jaialdien koordinatzaile eta bideratzaile, eta taldeko idazkari izan zen Lourdes (...) taldeko jaialdi bakar bat ere ez zuen huts egin”. Horixe Lourdes Iriondo.

1966ko martxoan plazaratu zen *Ez Dok Amairu* eta, zazpi urtez, 1972 urte amaiera arte hainbat emanaldi eskaini zituen Euskal Herrian. Haietan guztietan parte hartu zuen Lourdes Iriondok. Eta, hasieran, bera izan zuten gidari.

1975ean Franco diktadorea hilik, 1978ko maiatzean Hernanin eman zuen azkeneko jaialdia Lourdes Iriondok, Xa-



Lourdes Iriondo gitarra eskuan, ezkerretara Xabier Lete eta Eskubitarra Mikel Laboa dituela.

bier Lete, Antton Valverde eta Pantxo eta Peiorekin: “Saioak behingoz uztea erabaki zuen, Madrilan egindako [biho-tzeko] ebakuntza gogorraren ostean”, Joxemari Iriondok esana duenez.

Handik goitik, Urnietan egin zuen bidea Lourdes Iriondok, eta, besteak beste, ikastolan lagundu zuen, haurrentzako kantak sortu zituen, ipuinak eta antzerki-lanak idatzi... Eta gisa bertsuan jardun zuen lanean herriko parrokiaren altzoan, koruko lanean nahiz elizkizunetan. Tartean, hala ere, Xabier Leteri jaialdietan laguntzen ere agertu zen.

2005eko abenduaren 27 hil zen Lourdes Iriondo, 68 urte zituela. Hainbat omenaldi jaso zituen hil ondoan. Urnietan, haren izena hartu zuen parke batek, non ezarri baitzuten Jose Ramon Andak kantariaren omenez egindako eskultura. Halaber, haren izena darama herriko musika eskolak ere. Eta iazko urte amaieran Xabier Leteren heriotzaren hamargarren urteurrenean, presente egon zen, gogoan eduki zuten, batzuek eta besteek, *Ez Dok Amairu*ren hauspo haize-emaila izan zena: Lourdes Iriondo Mujika. ●



LIBURUA

Zer nazka!



DANI BLANCO

HASERREA

IÑIGO ASTIZ

IKASELKAR

XABIER ETXANIZ ERLE

Inurriak... zer nazka” dio liburu hone-tako neska protagonistak hasieran. Paisaia nahiko bukolikoan katiuskak eta txamarra horia dituen neska ikusten dugu, paseoan, eta bere inguruan hainbat animalia daude: katagorri bat eta xoxoa zuhaitzean, erbia erdi ezkutuan... eta lurrean meriendako hondarrak hartzen ari diren inurriak.

Inurri hauek ematen dioten nazka neskari, denak beltzak eta berdinak omen dira. Eta zer egiten du neskak inurri horien kontra? Zanza-zanza zapaltzen ditu batzuk. Horrek, jakina, inurrien haserre sorrarazten du eta beltz diren inurriak aurpegi gorritz agertzen hasiko zaizkigu, hasieran bat bakarrik, gero batzuk eta amaieran denak. Inu-

rriek, orduan, neskari eraso egin eta inetatik aurpegiraino egingo diote kosk.

Haserre dauden inurriek beren ohiko kolorea eskuratuko dute eta beren lane-tara itzulita diote “haserretzen direnean, umeak jasanezinak dira. Guzti-guztiak dira berdin-berdinak”. Liburua amaituko da esaldi honekin: “Umeak... zer nazka!”.

Egitura itxia du liburuak, haurren ikuspuntutik abiatuta inurrienera iritsiko gara. Kasu bietan, “zer nazka” diotelarik, paralelismoa erakusten zaigu bien artean. Izan ere, dena dago ikusten dugunaren eta besteekiko dugun (edo ez dugun) enpatiaren arabera.

Haserre liburu sinplea da, itxuraz, oso testu gutxirekin eta ilustrazio argi eta koloretsuekin, mezu argia helaraz-

ten diguna. Alde horretatik, aipagarria da Iñigo Astizen testu ekonomia, oso hitz gutxi –eta egitura errepikakorrekin– ederki lortzen du mezua helaraztea; eta Leire Salaberriaren ilustrazioen lana. Kolore pastelak erabiliz, trazu argiaren bidez, ingurua zainduz, ederki lortzen du protagonistetan fokalizatzea ikuslearen arreta, garrantzitsuena ederki islatuz.

Liburu hau, zalantzarik gabe, aproposa izan daiteke kontu askori buruz hitz egiteko –beldurra, haserre, amorrua, mendekua,...– eta horixe da, hain zuzen, argialetxe honen helburua; baina, baita ere, liburuak proposa da bertan agertzen zaigun istorio sinplearekin gozatzeko. ●



MUSIKA

Anita handia

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Ahots ederreko abeslariak daude, ahots ez hain harrigarriarekin baina adierazkortasun plusa dutenak ere bai, eta hortik aparte, artista handiak ere badaude, gehiago edo gutxiago gustatuko zaizkigunak, baina botere eta grina artistiko harrigarriaren jabe direnak. Azken multzo honetan Anita Rachvelishvili mezzo georgiar bikaina sailkatu behar dugu. Ahots eta musika fenomeno da eta ez du inor axolagabe uzten, bere ezaugarri artistiko harrigarriak direla eta.

Euskalduna Jauregiko agertokian bere presentzia indartsua eta sendoa zen, eta ñabarduraz eta indarrez beteriko bere mezu artistikoaren boterea iragartzen zuen, dudarik gabe. Emakume puska!

Mezzosoprano georgiar harrigarri honetaz inpresio gehien eragiten duena, zalantzarik gabe, bere ahotsaren botere izugarria da; erresonantziak eta kolore distiratsuz betea bere erregistro agudoan, fin eta garbia –baina indartsua–, eta sakona, oso haragitsua, gogorra batzuetan eta tinbre ia lehorrarekin grabeetan.

Eroso sentitu zen errusiar errepertorioan, batez ere Rachmaninoven abestietan, baina agian finetasun apur bat falta izan zitzaion Txaikovskyren abesti sentituetan. Hala ere, Manuel de Fallaren *Zazpi abesti herrikoi espainiarrak*, ondo gauzatuak, arraro gelditu ziren gure belarrientzat. Rachvelishviliren ahotsaren perfekzio bokala, biribiltasun eta iluntasun erakar-

garriak, agian, soberan zeuden nolabait, eta ez genuen sumatu ere egin intentzio, grazia edo adierazkortasunik, abesti horiek eskatzen duten moduan.

Operako ariei ekin aurretik, Rachvelishvilik Tosti-ren bi abesti oparitu zizkigun: *Non t'amo più* eta *Tristezza*, adierazkortasunez eta lirismo gozoz beteak.

Eta opera iritsi zen. Ahots horrekin, oro har oso ederra, boterez betea eta

**OLBEK ANTOLATUTA.
TXAIKOVSKY,
RACHMANINOV, FALLA,
TOSTI, VERDI,
MASSENET ETA
SAINT-SAËNS-EN LANAK**

**ANITA RACHVELISHVILI
MEZZOSOPRANOA.
VINCENZO SCALERA,
PIANO**

EUSKALDUNA JAUREGIA
OTSAILAK 27



ABAO BILBAO OPERA

akatsik gabeko kantu-lerroarekin, taxuz abestu zuen *Il Trovatore*-ren *Stride la vampa* aria, modu elektrizatzailean; eta ez zen gutxiago izan Don Carloren *Nel giardino del bello, saracin ostello* lanean. Ikusleek txalo zaparrada eskaini zuten, bi interpretazioek benetan merezi zuten gogo biziz. Eta piano interludio labur baten ondoren, Rachvelishvilik Saint-Saëns-en *Samson et Dalila* operaren *Mon coeur s'ouvre à ta voix* eskaini zuen, are sendoago, are adierazkorrago, benetan liluragarria zen ahotsa luzituz. Errezitaldiko onena izan zen, txalo zaparradaz eta kemen handiz saritua. ●



Iraganeko mamuak

■ IÑIGO BASAGUREN-DUARTE ■ ARTEDRAMA

Dei batek gure mundua dardarka jarri dezake. Dei batek denbora eten eta unibertsoan arrakala sor dezake. Dei batek orbainak ireki ditzake, erraiak airean utzi, odolustu arte.

“Zuen hilotzen aurrean makurtuko naizenean, guraso maiteak, zuen azalari musu eman orde, atximur egin eta ile-sorta bat kenduko dizuet” idatzi zuen Hervé Guibert-ek *Mes Parents* nobela laburrean. Gurasoen heriotzak hainbat sentimendu azaleratu ditzake, baita ilun eta mingarrienak ere. Gurasoen heriotzak hainbat min eta esan gabeko hitz jar ditzake mahai gainean, munduaren aurrean babesgabe egotearen sentimendua piztu dezake gugan, baita mamu zaharrak bizitzara ekarri ere. Hildakoak bakean utzi behar direla esan diguten arren, bartzuetan ezinezkoa zaigu beraiekin hitzik ez egitea.

Amancay Gaztañagak zuzendutako *Atzerrian lurra garratz* antzezlanean, Laurak (Laura Penagosa) haren mundua kolokan jarriko duen deia jasoko du. Badira urteak Kolonbiatik Euskal Herri-
ra etorri zena eta orain, hainbat oztopo gainditu ondoren, bere lehenengo arte erakusketa inauguratu behar duenean, albiste txar batek kolpatu du: ama hil egin da, Kolonbian, eta hara itzuli beharko du hiletara.

Laurak deia jaso eta hegaldiaren ordua heldu bitartean hainbat mamu, zailantza eta beldurri egin beharko die aurre. Zer egin galderari erantzun beharko dio: bere bikotekidearekin (Ander Lipus) Euskal Herrian geratu eta bere bidea jarraitu, ala Kolonbiara, jaioterrira, itzuli. Bihotzak zer dioen ez du argi Laurak. Ez da hemengoa, hemen arrotz sentitzen baita, umezurtz. Han, Kolonbian, ezer gutxi du, mamuak baino ez. Han, sortu zen lekuan, ez du argi pena guztiak

ATZERRIAN LURRA GARRATZ

NOIZ: martxoak 2

NON: Bilboko Arriaga Antzokia

kontsolatuko dituen, bizitza familiarra-
ren plazerak topatuko dituen. Erabakia hartu bitartean, amarekin lotutako hainbat oroitzapen berreskuratuko ditu. Ander Lipusek antzeztuko dituen hainbat pertsonaiarekin, hangoak eta hemengoak, hitz egin eta eztabaidatu beharko du. Barre eta negar egingo du. Ibon RG-ren musikaren erritmoan dantzatu beharko du Laurak etorkizun hurbilak planteatzen dizkion galderei erantzuna aurkitu bitartean.

Antzeztanaren une batean, ohe azpian ezkutatu den mamuak eskua luzatu eta Aurora orkatilatik oratu du. Orduan, mamua parez pare duela berarekin hitz egin behar du, erantzukiak egingo dizkio, esateko geratu direnak entzun beharko ditu mamuak. Bizitzan egin dako sakrifizioak eta bidean utzitakoak aurpegiatuko dizkio. Baina, atsegin edo ez, mamuei entzun behar diegu, bestela, nork kontatuko du beraien historia? ●



Hitz gezidunak

NAFARROAKO UDALERRIA PERTSO- NAIAREN IZENA	UKITZERA BEHARTU LEKU ATZIZKIA	ATERA, IRTEN	DANI BLANCO	JOZ, JOTZEN JOKOA, OLGETA	ARROKA LAUZAZ ESTALI	ADORE, KEMEN PERTSO- NAIAREN ABIZENA
INBUTU EZ EME				BARANDA BABESGARRI JANARI		
	NOR, PLURALEAN IPARRALDEKO LURBURU		HAMABI ERROMATAR ZENBAKIZ ITSAS UGAZTUNA	AGINPE, ERREINU BERO BAFADA		
BOLA BATEN ITXURAKOA ÄLTSUMA					DUDARIK GABE JARRAIBIDE ON	
		ÄIAKO HERRITARRA BIZIMODU ASZETIKOA DUENA				BIGARREN MUSIKA NOTA ZIBA
HIPOKRITA	LARRU LIBURU EUSKARRI		HIZKUNTZA SANDIA, BERENDIA			ÄLAI
				ISKANBILA, ZALAPARTA ÄRAZO, GATAZKA		
TELEBISTA ETXE BATEK HARTZEN DUEN EREMU		HAGA ÄARABIA IZENETAN, SEME-ÄLABA			PRESIO- UNITATE ZÄLDIEI GELDIAZ- TEKO	
			ÄRABAKO HERRIA ESTRON- TZIOAREN IKURRA			ROENTGEN OSMIOAREN IKURRA
TOKI BATERA HELDU ÄRGITASUNA KENDU				GIPUZKOAKO HERRIA ÄLFABETOKO AZKEN LETRA		
					BASAMORTU -KO LARRE	

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	8		6		7		1
1			4		3		5
			1		8		6
	3	5	4		9		
			6		3	9	5
7			3		1		
2		6		8			3
3		8		9			2

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Gorantz zuzen.
2. Udak irauten duen denboraldi.
3. Artez, ederki.
4. Helburuak, xedeak.
5. Ardura.

EBAZPENAK

1. ZUTIK
2. UDATE
3. TAXUZ
4. ITUAK
5. KEZKA

3	1	8	5	9	6	7	2	4	3
2	9	6	7	8	4	5	1	3	8
7	5	4	3	2	1	8	6	9	7
4	2	1	6	7	3	9	5	8	4
6	9	8	5	2	2	1	3	4	6
8	3	5	4	1	9	6	7	2	1
5	4	7	1	3	8	2	9	6	5
1	6	2	9	4	7	3	8	5	1
9	8	3	2	6	5	7	4	1	8

I	S	A	O	I	Z	A	R	A	N	U	T	I
A	S	T	O	E	Z	I	S	I	R	I	R	I
R	O	I	D	U	V	L	A	E	B	U	R	O
R	A	B	A	I	V	A	R	D	Z	B	T	B
A	L	A	B	U	I	S	E	U	A	R	I	F
O	T	Z	N	I	M	A	L	A	Z	A		
E	R	A	O	A	K	A	I	A	V	A	P	Z
R	U	I	Z	V	L	I	B	I	R	I	B	I
O	U	R	G	O	V	J	X	V	K	A	V	A
L	E	K	A	V								
A	S	A	L	O	J				I	K	A	N
B	H	J							U		A	

Maitane Arri Escudero

AKTIBISTA EKO-FEMINISTA



EKO-FEMINISMOA SARETZEN

“Arazoen ikuspegi transbertsalak bi-latzea dut gustuko, ikasteko dagoen guztiaren erakusgarri. Aktibismoan sareak ehuntzen dihardut, lanik politenetakoak Ekologistak Martxan konfederazioarekin eta Trantsizio Energetiko Ekofeministarako Emakumeen Sarean egindakoak dira. Lurralde bakoitzak bere ekofeminismoa eraiki behar du, mundu ikuskera bat baita. Energiaren sektorean herritarroi erabakimena zor zaigu, birmoldaketa osoa beharrezkoa eginez”.

“Hidrogenoa irtenbide biribila da Petronorren negozioarentzat eta irudiarentzat”

Ekologistak Martxan taldeko kidea da Maitane Arri Escudero (1977, Areeta). Euskal filologian lizentziatu eta itzultzaile lanetan urte luzez jardun ondoren, M15 mugimenduak aktibismo ekosozialerako grina piztu zion. Norbanakoen arduran baino, politikan, kudeaketa publikoan eta enpresa transnazionalen jardunean jartzen du fokua, ekologismoaren ikuspegi feminista ardatz gisa hartuz.

 LEIRE REGADAS  HODEI TORRES

Trantsizio ekologikora bideratutako proiektuak bultzatu nahi dituzte Europako funtsek. Nor egongo da proiektu horien atzean?

Erresilientziaren eta trantsizio ekologiko bidezkoaren kontrako bideari ekin dio Eusko Jaurlaritzak. Aliantza publiko-pribatua lehenetsiz, korporazio handiek jasoko dute dirua. Proiektu “estrategiko” horien hartzaile nagusien artean Petronor, Iberdrola, Repsol, Euskaltel edo CAF daude. Gainera, aurkeztutako proiektuen erdiak garapen kontzeptualeko fasean daude, haien bideragarritasuna ez dago bermatuta.

Hedabideetako goiburuetan eta politikarien adierazpenetan protagonismoa hartu du proiektu horien artean dagoen hidrogeno berdearen ekoizpenak. Zer dakigu horri buruz?

Deskarbonizaziorako bultzatzen ari den ereduaz azpiegitura handiena da eta hidrogenoaren estrategia logika horren barruan sartzen da. Gasaren industriari irtenbideak eskaintze-

ko diseinatuta dago, mundu globalizatuan ekoizpen eta kontsumo ereduaren ezertxo ere ez aldatzeko egina. Hidrogenoaren erabilerarik efizienteena makineria eta garraio pisutsurako eta tenperatura altuko industriarako erregai izatea litzateke, deskarbonizazio zaileko esparruak guztiak. Edonola ere, efizientzia maila % 40-60ra heltzen da.

Beraz?

Ez da planetak behar duen kontsumo murrizketa sustatzen ari, ezta zentralizaziotik distribuziorako bidea modu masiboan egiten ari ere. Kaleitsu horretarako bidea, gainera, diru publikoari esker baino ezingo da errentagarria izan enpresentzat.

Hidrogenoaren Euskal Korridorea Petronor-Repsol en eskutik sortu da, ‘greenwashing’ estrategia da?

Petronorrek eta Repsolek duela urte asko dakite Muskizko plantako jarduera aldatu behar dela, petrolioak laster utziko diola errentagarri izateari. Europako industria petrokimi-



"Kontsumoaren hazkundera eta azpiegitura handietan oinarritzen ari da trantsizio energetikoa".

koak bezala, hidrogenoarekin irtenbide biribila topatu du Petronorrek: bere negozioarentzat eta bere irudiarentzat. Baina trantsizio ekologiko gisa saltzen diguten hori ez da horren berdea. Petronorrek ekoitziko duen hidrogenoa gas fosiletik eratorria izango da hainbat urtez. Areago, Bilboko Portuan zaborra erreko duen erraustegi bat eraikiko du, hortik gasa erauzteko eta hidrogenoa sortzeko prozesuan erabiltzeko.

Ursula Von der Leyen Europar Batasuneko presidenteak Itun Berde Berria aurkeztu du "hazkunderako estrategia" gisa.

Azpiegitura handietan ez ezik, kontsumoaren hazkundera oinarritzen ari da trantsizio energetikoa, eredia aldatu gabe iturrien aldaketa hutsean ardaztuz. Ordezkaezinak diren materialen erreserbekin arazoak izango ditugu aurki, bai eta trantsizio energetiko horren hondakinekin ere.

Digitalizaziorako bidea egitea ere bada Europako funtsak jasotzeko baldintzetako bat. Bateragarria da trantsizio ekologikoarekin?

Garapen digitalak ordain material handia du: materialen ustiaketa, negutegi efektuko gasen isurketa, energia erabileraren intentsiboa, nazioarteko informazio sistemak, hondakinak... 4.0 industriak kritika gogorak izan ditu azken urteotan, eta horiei entzungor egin diete administrazioek.

Energia berriztagarriak dira deskarbonizaziorako egungo apustua. Proiektu hauek "kolonizatzaileak" direla salatzen dute Latinoamerikako giza eskubideen defendatzaileek.

Lurraldeak eta gorputzak zeharkatzen dituzte enpresa transnazionalak, nagusiki, emakumeen gorputzak. Horregatik askotan kolonialismo energetikoaz hitz egiten dugu. Estraktibismoak aurrera jarraitzen du mundu osoan: Iberdrola, adibidez, makroparke eoliko bat eraikitzen ari da Mexikon. Hasteko, ez die kontsultarik egin hango herri indigenei, Laren Nazioarteko Erakundearen 169. hitzarmenean ezartzen denaren kontra. Herri indigenen bizimodua bermatzen duen lurraldea eta ekonomia tradizionala, bereziki emakumeen autonomiari laguntzen diona, arriskuan jarriko ditu

proiektuak. Iberdrolaren negozioak, hortaz, ez dira ez berdeak, ez moreak.

Lurra, natura eta oro har, bizitza erdigunean jartzeko aldarrikapenean erreferenteak dira Latinoamerikako emakume indigenak. Zer dugu ikasteko?

Latinoamerikako ekofeminismoa eta lurralde-gorputz binomioa oso iradokigarriak izan daitezke guretzat, baina praktikan jartzeko modu ugari daude. Euskal Herrian, adibidez, agroekologia zaintza kolektibo gisa ulertzen duen ekofeminismoa eraikitzen ari da, edo espazio publiko zaindretarako espazio gisa ikusten duena, edo ekofeminismo antimilitarista.

Hazkunderaren paradigma alboratzen ez den bitartean, nola aurreikusten dituzu datozen urteak?

Egun dugun megaegitura mantentzeko beharrezkoak diren energia eta materialen kontsumoa planetaren muga biofisikoak gaintzen ari da. Irtenbidea ez dago energia fosilaren ordez energia iturri berriztagarriak erabiltzean. Gure kontsumo eta hazkunde mailak apaldu behar ditugu. ●



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS

Astrazeneca txertatu eta gero Herritar Batasunako kide egin da Carlos Iturgaiz



Carlos Iturgaiz freedom fighter santurtziarrak Herritar Batasunako kide egin dela iragarri du, Astrazeneca txertoa jaso eta bost minutura. “Bada garaia Herri Batasunaren gogo independentista eta sozialista iraultzaillea berreskuratzeko”, adierazi du osasun-zentrotik irtetea. “Karlandiren aurka zalditeria arina baliatu genuen bezala, baskoiok behar dugu Miren Larrion bezalako emakume txikiburges erra-

dikalizatuen hatzaparretatik liberatu eta deabru putakume zikinen norabide aldaketa erreformistaren aurka altxatu. Zeren eta koronabirusaren kontrakoa ez da gatazka bat. Gezur puta da hori! Bataila bat da!!”. Eusko Jaurlaritzak lasaitasunerako deia egin du, 100.000 biztanletik bakarrik egiten duelako ziaboga politikoa Astrazeneca txertoa jaso ostean, eta aurretik ere sintomak erakutsi dituen jendeak bakarrik. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Euskal itsasoan



INSTAGRAM: XALBATOR

Egin kasu amari



Oiartzungo koadrila batek autokarabanan osatuko du Korrika-ren ibilbide sinbolikoa



Euskaltzaleak ondo irabazitako atsedena hartzen.

Aurten Korrika egingo ez dela eta, Oiartzungo koadrila bat autokarabanan osatzen ari da balizko ibilbidea, hasi Barkoxen eta Trebiñura arte. Hogeita bost lagun dira bidean doazena, bakoitza bere autokarabanarekin, askatasuna –eta euskara, noski– maite duten euskaldun zintzoen modura. Hala xe azaldu digu haietako batek: “Hasiera batean ibilbide osoa korrika egitea zen

gure asmoa, baina hori jada ez da nahikoa euskalduna, eta horregatik autokarabanak, gureago direlako, eta bozgorailuak-eta eramateko egokiagoak direlako. Mugak gehiago irekitzeko zain gaude, aldarrikapena nazioartera ere zabaltzeko: Piriak, Alpeak, Andaluziako kostaldea... euskarak bereziki bultzada behar duen leketan hasita. Ez diezaigun oztoporik jarri euskarari”. ●

INPRENTA
Offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

DISEINU
EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!*



**ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK**

www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160
LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus

Euskadi Zeu Zara

euskaditurismo.eus
#EuskadiZeuZara



EUSKADI
BASQUE COUNTRY